

17. zenbakia
2001eko martxoa


URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

UK

Disc Jockey

Modan daude.
Musika elektronikoa gustukoa
duten eskualdeko lau
disco jartzaile
elkartu ditugu

• jon sarasua • tabernariak • flashback • joan mari irigoien •



[irudia]

Kutsadura Arriluze, 2001eko otsaila. Ez dago ezer esan beharrik.

Argazkia: Mikel Martinez

ARGITARATZAILEA: Boluntzarieta E.B.E.
 HELBIDEA: Anesi 6, 4. solairua, 5. bulegia 48990 GETXO
 e-mail: aldizkari@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
 ERREDAKZIOA: Esi Eskerra, Andoni Lloza, Javi Gonzalez del Herrero
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Barro
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKARIA: Gotxo Vázquez
 KOLABORATZAILERAK: Bitor Egurrea, Jokin de Pedro, Itaso Arana, Gañika Escudero, Unai Elooriaga, Algotako Bertsolari Eskola, Akitze Kaminuaga, Xabier Páiz, Izar de Cos, Kristina Sangoniz, Janire Korkoste
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugaña
 PUBUZITATEA: Jon Gablondo (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / ENPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Osorik edo zati, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ez da gaituzki dago.

© BOLUNTZARRETA

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskarazko TOPAGUNEko parte da



Aldizkari honek Bizarra Lepoa Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Ixasgane Etxea / Karriateia 1



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udaltaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaltako Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Irakurle,

gogoratu gauza garrantzitsu

bat,

UK berez doan banatzen

jarraitzen dugu eta horrela

jarraituko dugu. Aldizkaria

jaso nahi duenak deitu

baino (94 491 13 37) ez du

egin behar. Hala ere, pozik

onartzen ditugu zuen

dirulaguntzak



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

[flasha]

APURKA-APURKA bada ere, aurrera doa aldizkari hau. Iaz aldizkariarekin batera Leioarako propio egindako lau orrialdeko gehigarri bat banatzen hasi ginen hilabetero herri horretan. Elkartu zaigun hurrengo herria Erandio izan da eta joan den hilabetearen herri horretarako beste gehigarri bat egiten hasi ginen Berbots Euskara Elkarte kideekin elkarlanean. Argazkia Erandio egin genuen aurkezpen egunekoak duzue. Eta gauzak ez dira hor amaitzen, datorren hilabeteetik aurrera, gauzak okertzen ez badira, behintzat, Berangok be bere gehigarria izango du.

[MARTXOA]

Aldakorra dugu martxoa, hile aldakorrik bada, udaberria etorriko ez etorriko jarduten du eta, kukuaren lehen kantua eraberritzea aldarrikatu arte. Eta iragarlea bera ere ez ote da basoko hegaztiarik iruzurtiena? Bera ez egitearren inoren habia erabiltzen du kukuak bere kume potoloak hazi daitezzen, txepetx amaren etsipenerako.

Martxoan kukuari lehen kantua entzutean, erne! Sakelan dirutxuren bat duzula harrapa zaitzala, osterantzean... kukuak oker joko dizu, urte osorako jo ere!

Herriak ondo daki martxoaren iruzurraren berri: “Martxo gezurti: gaur euri, bihar eguzki”. Izan ere, “Euria eta eguzkia, martiko eguraldia”. Bai, hala da: “Martxoan, goizeko eguzkia, arratsaldeko euria”.

Nork daki, agian martxoan sortuko zen esamolde txanbelin hura: “Lehen halan, orain holan, gero ez jakin zelan...”

JOKIN DE PEDRO

San Jorge eta Herensugea



Txabi Anuzita kooperante bat El Salvador-en

“Nire alabek lurrikarak simulatzera jolasten dute hemengo umeekin”

Getxokoa da eta 43 urte ditu. Kooperantea orain dela hamar urte, 1997tik Hirugarren Mundua eta Bakea erakundean egiten du lan Txabi Anuzitak. Lehenago sei urte eman zituen Afrikan eta dagoeneko urte bete eta erdi daroma El Salvadorren. Bera da hango jendeari laguntzeko proiektu baten zuzendaria eta han bizi da familiarekin. Txabik alaba bi ditu: Amaia eta Nerea, hiru eta zazpi urtekoak. “Nire alabek lurrikarak simulatzen jolasten dute hemengo umeekin”, dio Txabik.

Elkarrizketa hau egiteko telefonoz deitu genion. Ordu biak ziren Euskal Herrian baina goizeko zazpiak baino ez El Salvadorren eta dutxan harrapatu genuen Txabi, artean erdi lotan zen gizajoa. Hala eta guztiz ere, gizabide osoz erantzun zigun getxoxtar jator honek.

Zelakoa da El Salvadorren egiten duzun lana, Txabi?

Hemengo jendeari ahal dugun neurrian laguntzen diogu; etxeak eraikitzen, lurra lantzeko tresnak eman... Dagoeneko 4.400 familia baino gehiago dira laguntza hau jasotzen dutenak.


Azken lurrikarek lan hori guztia pikutara bota dutela esan liteke?

Beno, ez guztia baina asko bai; gehiena. Adibidez Kuskatlan edo Usulután erabat suntsiturik daude. Pairatu genuen bigarren lurrikara handiak 354 etxe bota zituen; gehienak pezuzko txabolak.

Beraz, zuek lurrikara biak nabaritu zenuzuten...

Bi baino gehiago. Urtarrilaren 13tik hona, 3.400 lurrikara gertatu dira; hamabost minuturo bat, gutxi gora-behera. Gehienak txikiak baina denetarik eduki dugu. Gu gauden lekuari “El valle de las hamacas” deitzen diote lurrikara asko daudelako.

Zelan dago orduan jendea? Erabat beldurtuta. Jende gehienak kalean egiten du lo, 50.000 pertsona baino gehiago etxerik gabe daude, eta ikastetxeak oraindik itxita daude.



Zer gertatzen da ba? Bidalitako laguntza, ez da ailegatzen ala?

Bai, heldu heltzen da; badauzkagu mantak, elikagaiak, botikak... Baina ez da hori soilik hemengoek behar dutena. Jendea beldur da, negua euritsua baita El Salvadorren eta gauzak hobetzen ez badira, askok ez dute neguan babesteko aterperik edukiko. Eta hori arazo larria izango da. Gainera, hasiera batean laguntza piloa heltzen zaigu beti, baina gero jendeari tragedia nolabait ahaztu egiten zaio eta laguntza murriztu egiten da gehien behar denean.

Azkenik, zer eskatuko zenieke euskal herri-tarrei?

Ba, hori, ezta? Gertatutakoa ez ahazteko eta ahal duten neurrian laguntzen jarraitzeko. Hemen egoerak txarrera egin dezake datozen hilabeteetan sortu daitezkeen izurriekin eta urtero egoten diren uholdeekin. El Salvador oso herrialde pobrea zen lurrikara hauek guztiek gertatu baino lehen eta, beraz, erraza da imajinatzea zelako egoeran gertatuko den honik aurrera. Ba, hori, esandakoa, herriotan laguntza beti ere beharrezkoa izaten dela. m

Salsidu-Liverpool

Testua: Unai Elorriaga

“Nork ez du ikusi, esate baterako, kotxe batek harrapatu duen pizza-banatzaille bat semaforo baten kontra edo farola baten kontra

horiexek izaten dira kasurik lotsagarri eta deserosoenak, pizzan bertan itota hiltzen dira. Gero intsektizidak ere badaude eta abildade zein arintasun handiko pizzajaleen belarrondokoak. Hitz batean esanda, bizimodu tragikoa da euli eta pizza-banatzailleena, eta arima gutxi bildu ohi dituzte normalean. ^m

Guk uste baino gehiago dakite. Esaterako, fisika dakite, eta astronomia. Datorren astean demiurgia ikastaro bat daukate, esaterako. Guk motorretan ikusten ditugu, pizzak banatzen, eta ridikuloak iruditzen zaizkigu. Baina ez dira pizza-banatzailleak eta are gutxiago ridikuloak. Batzuk bai. Batzuk pizza-banatzailleak dira, baina gutxiengo; %11 edo %7 dira benetako pizza-banatzailleak, tapadera hutsa. Batzuk, gainera, ezagutu ere ezagutuko ditugu; bat Aitor izango da eta beste bat Pedro, auzokoa edo Maria Luisaren lobaren laguna. Horiak benetako pizza-banatzailleak dira, engainatuta bizi direnak (soldata ederra ematen dieten arren). Gainerakoak ez.


Gainerakoak deabruak dira. Ez daukate, jakina, Luziferrek edo Belzebuk daukaten statusa, baina deabruak dira, peto-petoak. Nork ez du ikusi, esate baterako, kotxe batek harrapatu duen pizza-banatzaille bat semaforo baten kontra edo farola baten kontra lehertzen. Gero, hala ere, berehala altxatzen dira eta pizzak banatzen jarraitzen dute, sugandilen buztanak balira bezala. Kontua ez da hilezkorrak direla: gomazkoak dira. Zuzenago esateko, gomazko pilotak bezalakoak dira eta bote egitean ez dakizu ze norabidetan irtengo diren.

Baten bati entzun izan diot hegan ere badakitela. Baina ez dut hori sinesten. Hori ipuin fantastikoetan baino ez da gertatzen. Ez dut uste, halaber, buztanik daukatenik.

Teknika deaburatuak daukate, hori bai. Nor ez da konturatu, esaterako, pizza entregatzen dutenean beti sartzen dela euli bat eroslearen etxean. Pizza-banatzailleak txirrina jotzen du (lehenengo portalean eta gero etxeko atean). Etxeko nagusiak atea zabaltzen duenean euli bat sartzen da etxera pizzarekin batera. Euliak deabruen laguntzaileak izan dira beti. Zertarako daude, bestela, euliak munduan. Euliak dira deabruen laguntzaile profesionalak. Ez dira izaten, baina, euli iletsu-berde nazkagarriak, pentsa dezakegun bezala. Ondo euli lirainak izaten dira, estilizatuak eta lizunak.


Euli-satorraren misioa ez da erraza, ordea. Euliak etxeko nagusiaren belarritik sartu beharra dauka, eta kasu arraro batzuetan ahotik (horretarako beste heziketa-maila bat eduki behar badu ere, osoagoa eta sistematikoagoa).

Euliak ere ez dira hilezkorrak eta sufrikarioak pasatu behar izan dituzte pizzajale batzuen etxetan (euli-heroien elezaharrak eta baladak ere idatzi izan dira). Euli batzuk, eta



Mikiel Martinez

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / BIZKAIKO ZUBIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Zertaz ez zinateke sekula mozorrotuko?

Algortako Inauterietan goizeko ordu txikietan egina



ZAKIL
ERRALDOIA
Z, ezinezkoa da
gezurra da mito
hori!
Juan




EZ DIOY NIRE buruari inolako
mugarik jarzaten!




Ba, persona batek "ni" asko
ditu. Ni ez nintzateke nire ni
horiek guztietaz
mozorrotuko! (?)
Aida



BUTANO BONBONAZ,
ez nintzateke bat-ere sexi
sentituko eta niri sexi
sentitzea gustatzen zait!
Eva



INDIOZ, betiko
mozorro tipiko erraza
delako.
Zuriñe




AZNARez, alu bat da eta gainera
ez da ezer ligatzen.
Mikel




MADAN BUTERFLY-Z, ardo asko edaten
duena. Zergatik? Ba, begiratu Naiara, bere
itxura bera izango nuke!
Irantzu

70EKO EMAKUMEA TIPKO-AZ...
ardo asko edaten duena... Zergatik?
Ez dator nirekin bat! Ejem!
Naiara

Agurtzian ateratzen baita, baita ez dugu
erantzun nahi izan. Nirekin k...



SEMEN EMALE
DAMUTUaz, munduan
barraiatuta dauzkadan
semeak bilatzeaz
aspertuta nagoelako.
Carlos



MADERO-Z, nire bizitza osoa izorratu
baino ez didate egiten.
Inge



TROGLODITA-Z, sekulan ez!
Zuriñe

TAMARA-Z... iste dut ez
duela azalpenik behar.
Mertxe

MARUJITA
DIEZ-EN
NOBIOA-Z
ezta pentsatu
ere!



BILBOMICRO

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

KURKUDI LIBURUDENDA


Euskarazko irakurgai guztiak!!

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Ainguruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrerara, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atseгина

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

BARBIRULAU 5 BOS
ALGORTA
 dj.ak
 antzerkia
 erakusketak

k
r
i
m
e
a

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 - ALGORTA
 Tf.: 944 306 493

jateko


urdaitegia • frutadenda • elikagaiak

Amezti 4 - Tf.: 94 491 06 54
 ALGORTA

[begizorrotz]

Testua: Maddi Albizu

Soziologo honi, lantzean behin merkatuan azaltzen diren kontsumo produktu iragankor (tamagochia, patinetea...) horiei buruzko iritzia eskatu diogu



Mikel Martinez

Kontu jakina da umeen berezko izaera berekoa. Jaio berriak "Jateko ordua iritsi zait" dionean, akabo!!, mundua gelditu egiten da hari jaten emateko. Umeak ez daki itxaroten eta metroan egon zein igogailu baten barruan egon biberioa eman behar zaio, bere negarrak tinpanoa haustea nahi ez badugu, behintzat. Bestalde, eta kaletik zehar biluzik doan errege harroaren eta ume lotsagabearen ipuinean ondo baino hobeto islatuta dagoen bezala (gogoratu: Ene, erregea larru gorritan doa baina!...) umeek nagusiek pentsatzen baina esaten ez duguna adierazi egiten dute inolako lotsarik eta konplexurik gabe. Horregatik, umeen portaera aztertzeak nagusien portaerari buruzko informazio ugari ematen digu.

Tamagochia, patinetea, tazoak, Spice Girls... hitz batean, modak, ikaragarriko eragina du umeengan, baina nagusiongan duen eraginaren parekoa da. Umeen kasuan, beharbada, eragin hori are nabarmenagoa da zerbait nahi dutenean halaxe adierazten dutelako eta hori lortu arte plastada ematen egongo direlako; tematiak zer dira, ba, gure umeetxoak!

Kontsumo gizartea kontsumoa oinarrian duen gizartea da. Umeentzako kontsumo produktu efimero edo iragankorren fenomeno ulertzeko nahikoa izan liteke esatea enpresek etengabe produktu berriak merkataturatu behar dituztela beren etekinei eusteko edota hauek handitzeko. Beraz, fenomenoaren atzean merkatuaren logika soil dagoela esan liteke. Egia da merkatuak eta publizitateak izugarriko eragina dutela, baina egia honetatik harago joan ezean galdu egingo genuke fenomeno honek agerian uzten duen hausnarketarako datu interesgarri bat: berritasunak gudan sortarazten duen sedukzioaren eragina kontsumo esparruan ez ezik bizitzako gainontzeko eremuetan ere nabarmentzen da. Berritasunarekiko grina erabat txertaturik dago gure balore kulturalen artean, eta horregatik eguneroko lana, ikasketak, harreman bikotea, etab. inoiz baino gogaikarriagoak zaizkigu, umea tamagochia erosi eta hamar minutura aspertuko den bezalaxe. Ikus daitekeenez, badugu umeengandik zer ikasirik. m



Bigarren eskuko dendak
 Uribe Kostan:
 La Prenderia
 Sarrikobaso 26, Algorta
 Tf: 94 430 08 61
 Peque Ocasión
 Salsidu 1, Algorta
 Tf: 610 54 97 97
 Camden Town
 Iturigorri 5, Areta
 Tf: 94 431 63 26

[moda]

Merke jantzi

Bigarren eskuko arropa dendak

Europar oso finkatuta dagoen denda mota hau, bere leku-txoa hartuz doa gure gaur eguneko gizartean. Gazteak izan dira tendentzia honen lehendabiziko jarraitzaileak eta nagusiak ere, poliki-poliki ohituz doaz janzkera alternatibo berrira. Bilbon asko saltzen duten denda hauek, Uribe Kostan zailtasun gehiago izan dituzte, batez ere eremua bera ere txikiagoa delako. Hala ere, gero eta bezero gehiago bereganatzen dituzten bigarren eskuko dendak badaude. Denda hauetan gehien erosten dena larruzko txamarrak eta berokiak dira, hala ere, prakak, jertseak eta beste hainbat gauza ere aurki ditzakegu, festetarako jantzietatik hasi eta gaur egun modan dauden belarrietakoak bitarte.

Arroparen jatorriari buruz dagokionez, esan beharra dago zenbaitetan Ingalaterratik ekarritako generoa dela hemen saltzen dena; beste kasu batzuetan bezeroak eurak dira hornitzaile eta erosle aldi berean. Hasiera batean jendeak errezeloz begiratzen zuen janzkera mota hau, baina zer dela eta? Bigarren eskuko aukera honen onarpenak kulturarekin harreman estua du. Nahiz eta hasiera batean arraroa iruditu, kultura maila handieneko jendea da batez ere bigarren eskuko arropa-dendetan erosten animatzen dena. Candem Town-eko dendariak argitzen digun bezala "Mundutik zehar bidaiatu duen jendea da, kultura desberdinak ezagutu dituena eta bakoitzaren abantailak eta desabantailak antzemateko aukera izan duena; gainera, askotan berdin zaie 100.000 pezetako jaka jartzea edo 2.500ekoa.". Urte batzuk barru jendeak ulertuko du zelako abantailak dituen bigarren eskuko arropak erabiltzeak. Edo ez diguzu esango, ezta, zure lagunekin arroparik ez duzula inoiz aldatu? m

Testua: Itziar de Cos / Argazkiak: Mikel Martinez

zure markarik onenak sport wear-ean

Serigrafia eta transfer

azkartasuna kalitatea prezioa
 kamisetarik onenak preziorik onenean!
 zure kamiseta, publizitate artikulu eta fotokopia denda

- Enpresen publiziterako oihalen inpresioa eta salmenta, ikasketa bidaiak, koadrilak...
- Niki personalizatuak momentuan
- Erreklamo publizitarioak (txiskeroak, pegatinak, bolaluma...)
- Bordatu industrialak
- Aukeratu zeure kolorea arropa tintatuetan
- Grabatuak laserrean (metalak, plastikoak, egurra, larrua...)

martxoan eta apirilean
1.000 kamiseta zuri S. Star kolore batean 299 pta.tik. Guztia barne!!

<p>ATOR</p> <ul style="list-style-type: none"> • Fotokopiak zuribeltzean • Fotokopiak koloretan • Enkoadernazioak, faszikulak • Anplazio zein erredukzioak • Plastikazioak • Inprentak, txartelak • Papeleria • Gomazko zigituak 	<p>ALGORTA Algortako etorb. 106 Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62</p>	<p>BILBO (lantegia eta biltegia) Moncada 9, 3. Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46 e-mail: atorfym@euskalnet.net</p>	<p>LEIOA Sabino Arana etorb. 86 Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46</p>
---	--	--	--



Mikel Martinez

“Egizu Getxo euskaldun” egitarauaren barruan antolatutako Xabier Amurizaren hitzaldia

Euskaraz bizi

Ekitaldi mordoia: Urdulizko euskara taldearen 10. urteurrena, Kanpamartxo, Korrika...

Udaberriarekin batera, loreekin gertatzen den moduan, euskara bera ere loratzen ari dela ematen du. Izan ere, euskararen inguruko ekitaldi mordoia izango dugu Uribe Kostan martxoan zehar. Alde batek, Bizarra Lepoan Euskara Elkartek, Getxoko euskaltegiek eta Udalak martxoan daukaten Egizu Getxo Euskaldun programa barruan euskaraz gozatzeko hainbat ekitaldi jarriko dira abian. Adibidez, interneten nabigatzeko ikastaroa hasiko da hilak 13an, sukaldaritza gustukua duenak postreen gainean gehiago ikasi ahal izango du gozogintza ikastaroan (martxoaren 22an hasiko da), eta euskal dantzetan bere burua trebatu nahi duenak, zapatu goizero gehiago ikasi dezake Getxoko Itxas Argia-ko taldeko kideekin batera. Zer esanik ez ikastaro guztiak euskaraz direla. Argibide gehiagotarako badago telefono bat: 617 912 175. Leirek gustura emango ditu behar besteko azalpenak.

Bestalde Urdulizko Euskara Taldeak badu pozik egoteko aitzakiarik: hamar urte beteko ditu aurten. Zorionak! Eta horrelako efemeride ganoraz ospatzeko uda arte iraungo duen egitaraua prestatu dute. Martxoan, adibidez hiru hitzaldi antolatu dituzte. Martxoaren 16an, Ladak-eko inperio galdua, gaia hartuta, Beñat Larrinagak hitzaldia eskainiko du; 23an, Aurkene Ereñozaga Boliviak mintzatuko da eta 30an, Jon Arretxe idazle arrakastatsua munduen koloreetat.

Erandion be, orain dela zapi urte ospatzen hasi ziren Kanpamartxo jaialdia antolatu dute berriro Berbots Euskara Elkarteko gure lagunek. Egunpasa honek euskara du ardatz, eta bertan goizez zein arratsalde, ekitaldi mordoia egongo dira. Hitzordua apirilaren 1ean Kukularran; ez hutsik egin! Eta ez ahaztu, bezperan Korrika-k gure eskualdea zeharkatuko du. m



Komiki berriak

Herriko egileen lan ausart bi

Borja Crespo eta Koldo Serra getxoztarrek egindako komikiak kioskoetan aurkitu daitezke jada. Beraien izenburuak “La bestia del día”, Koldo Serrak eginikoa, eta “Comic horror freak show”, Borja Cresporena. Helduentzako komiki hauek kritika ugari dituzte haien orrialdeetan; porno japoniarri, telebaborra delakoari, Beltrán medikuari eta abar.

Lagunak dira aspalditik Koldo eta Borja. Elkarrekin ikasi zituzten Arte Ederrak eta biak komikizale amorratuak dira. Zientzia fikzio eta gore filmak ere gustatzen zaizkie eta zaletasun hauek guztiek beraien lanetan nabaritzen dira. Gainera, Koldok eskarmentua badauka zine arloan “Amor de madre” laburmetraia saritua zuzendu zuenetik. Komikiei dagokionez, Dogway aldizkarian eta Burp, Subterfuge eta Lobotomía fanzinetan lan egin du Koldok azkenengo urteetan, batzuetan Borjarekin batera. Borjak ere bere lehenengo pausua eman ditu zinearen munduan baina, Koldori gertatzen zaion bezala, komikiak dira bere zaletasunik handiena. Bera izan zen, hain zuzen ere, Hilargi argitaletxearekin harremanetan jarri zena euren lanak aurkezteko.

Hilargi Komiks argitaletxeak –Hilargi Records diskoetxe ospetsuaren ahizpa txikia– interesa agertu zuen hasieratik eta laster argitaratu zizkion komikiak bikote saiatu honi. Argitarapen hauek Koldo eta Borjaren lan zaharrak eta argitagabeak batzen dituzte eta printzipioz ez du maiztasun zehatzik edukiko. Hiru mila ale argitaratu dira lehenengo tirada honetan estatu osoan zehar banatzeko eta hurrengoak, oraindik handiagoa izango da, aleak Mexikon eta Buenos Airesen banatuko direlako. Euren lanak ezagutu nahi badituzue, badakizue nora jo; “Comic horror freak show” eta “La bestia del día” herriko kioskoetan salgai daude honezkeron. m



Goian ezkerretik eskuinera, Koldo Serra, Borja Crespo eta euren lagun bat. Azpian, plazaratu dituzten komikien azalak.

Café LaPlaza

ALGORTA

4 bide pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Lau bide 7 • Tlf/Fax: 94 676 52 40 • SOPELA
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ZERBITZU GUNEA

EVITAME S. A.
GETXOKO ANDRAMARI

- GASOLEOA ETXEAN **Campsá**
- ITV AURREKOA
- NEUMATIKOAK
- MEKANIKA
- AUTOEN GARBIKETA
- OPARIAK
- PRENTSA
- ALDIZKARIAK
- ELIKAGAIK

Bilbo plentzia errepidea, km 18
GETXOKO ANDRAMARI %94 430 15 00

ENEKO

BAR MUSIKA

“Tabernatxu” Jatetxea

- MENUAK ASTEAN ZEHAR
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientoetxe 39, GETXO. T: 491 16 61

SATISTEGI

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51 ALGORTA
% 94 46019 69



Bittor Allende eta Alvaro Gurrea, Paradox-eko kideak

Paradox ideien lantegia

Publizitate gordina eta basatia

Nork ez du gogoratzen Bilboko jaietan udaletxe ondoan egoten den txosnako Groutxo Marx-en irudia, edota garai bateko EMK-ko kartel deigarriak, edota Korrika iragartzen zuten lehenengo kartel haiek, edota... Bada, honezkero gure oroimen ikonografikoaren zati diren irudi horien errudun eta erantzuleek izen-deiturak badituzte. Gu Alvaro Gurrea eta Bittor Allendekin egon gara, gaur egun *Paradox Oficina General de Inventos-eko kideekin. Kartelgintzaren, esan dezagun, urrezko garai hartako aktibistak izan ziren eta ondoren honezkero hil diren beste bi lagunekin batera (azkena Travol), Paradox sortu zuten duela hamazortzi urte. Enpresari izena Pio Barojak asmatutako pertsonaia zoro batetik dator: Silvestre Paradox.




Esan bezala, gaur egun gehiegi erabiltzen ez den kartelaren kulturaren hezi eta hazitako lagunak ditugu Paradox-ekoak, eta eurak zeozer izatekoatan, kartelistak direla diote. Eta kartelak, komunikatu nahi badu behintzat, zuzena, erabatekoa izan behar du. Zalantza barik, horixe da hain zuzen ere, euren lanen ezaugarri nabarmenena (zalantzarik izanez gero, begiratu eskuineko orrialdea). Euren lan egiteko estiloaz, filofofiaz galdetu diegu eta argi erantzun digute: “Kontuan hartu hamazortzi urte eman ditugula elkarrekin beharrean eta horregatik gure artean badago sintonia berezia. Oso artisauak

ere bagara, guri den-dena egitea gustatzen zaigu. Badaukagu premisa bat: gure buruei, gure burutazioei inolako mugarik ez jartzea, gero jakina, emaitzak direnak dira eta argi dago guri publizitate basatia, ikusgarria gustatzen zaigula, horixe da nolabait gure estiloa. Bezero batzuk onartzen dute, eta beste batzuk ez. Bestalde, oso zehatzak eta zorrotzak ere bagara, eta hamaika buelta ematen diogu gauza bakoitzari, kartel bakar bat egiteko hilabete osoa eman dezakegu”.

Baina, lehen esan bezala, Paradox-ekoak ez dira kartelgintzara mugatzen. Adibidez, BBK-ren logotipo berria eta hau ezagutarazteko kanpaina, euren ideien lantegiko azken lanetako bat da. Getxon, denon ahotan egon ziren kanpaina pare bat (alkoholaren gehiegizko kontsumoaren aurkako eta txakurren gorotzei buruzkoa) eurek egin zituzten. Telebistarako be, hainbat iragarki egin dituzte: SOS Deiak, Euskal Eskola Publikoa, Emakundeko batzuk, Euskal Herriko gobernu kanpoko erakundeentzat... Azkenetako bat, ya.com interneteko portal edo ataria iragartzen zuena, iraingarria zelakoan ez emititzea erabaki zuten TVE-ek eta T5-ek (iragarkian, Belen-eko portala eta guardia zibilen bat, tartean ziren).

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

* Paradox, Oficina General de Inventos
Ibañez de Bilbao 2, 3. ezk. / 94 423 88 04 / 480001 Bilbo



1. Getxon denon ahotan ibili zen txakurren gorotzei buruzko kanpaina / 2. Kartel politikoa egin zituzten bere garaian, hau bitxi horietako bat duzue / 3. Getxon, alkoholaren gehiegizko kontsumoaren aurkako egindako kanpainaren kartel bat / 4. Elkartasunerako dei bat gobernu kanpoko erakundeentzat / 5. Bilboko Bizkaia Kutzaren logotipo berria zein logotipoa ezagutarazteko kanpaina euren beste lanetako bat da / 6. Bai&By euskara eta ingeleza irakasten duen akademiarentzat publizitate kanpaina egin dute Paradox-ekoek, telebistako iragarkiak zein metroan ikus daitezkeen kartelak.



Naia Castillo eskultorea

Nortasunari buruzko eskultura eta irudiak

ARCOtik hau da, Madrilera joateko aitzakia izaten den arte azoka horretatik, etorriberria da Naia Castillo (Getxo, 1975) eskultore gaztea. Han, ARCON bere lanetako batzuk ikusgai eta salgai egon dira. Aspaldian dabil Naia artaren munduari lotua eta hain gaztea bada ere bere kurrikuluma oso luzea da. Arte ederrak ikasi zituen Leioan eta iaz Chelsea College of Art & design (Londres) ikastetxean ohorezko matrikularekin lizentziatu zen eskulturazko master batean. Hainbat beka eskuratu ditu eta bere lanak, besteak beste, Londresen, Donostian, Valentzian eta Bilbon erakutsi ditu. Orain

arte taldekako erakusketetan parte hartu izan du baina laster, uztaile aldera bere lehengo erakusketa indibiduala egingo du Bilbon, Bilbao Arte galerian. Eta ez hori bakarrik, apirilean Londresen erakutsiko ditu lanak eta uda partean, Bartzelonan izen handiko beste emakumezko batzuekin batera (Dora Maar, Cindy Sherman...).

Esan bezala Naia eskultore da, eta batez ere eskultura landu izan du orain arte. Bere lanak artxibatze lan horien argazkiak egiten hasi zen eta orain, argazki horiek artelan bihurtu ditu. Batzuetan, eskultura eta eskulturaren argazkia bata bestearen alboan paratzen



1. Etxe espazioa-kuxin (Cibachrome)
2. Titulu barik-erretratu (jatorrizkoa koloretan)
3. Elkarrizketa (jatorrizkoa koloretan)
4. Etxe espazio-aulkia (jatorrizkoa koloretan)


ditu erakusketetan, beste batzuetan berriz, argazkiak baino ez, adibidez ARCOra bost argazki eraman zituen. Jorrazten dituen gaiei dagokionez, bere lan guztiak nortasun edo identitatearen gaitik abiatzen dira. Argazkiak (eskulturaren ikuspuntutik hartuak) egiteko erabiltzen dituen modeloak, eguneroko bizitzaren testuinguruan azaltzen zaizkigun norbanakoak dira eta euren deserotasun eta moldagabetasun egoerak islatzen dute. Inguru edo testuinguru horrek norbanakoa harrapatzen duela ematen du, eta ez dakigu argi non hasten den bata eta non bestea. m



Tabernari bizitza

Traguak jarri, bezeroen umore txarra aguantatu, mozkortien kezkek entzun... eta lana bukatu ondoren taberna garbitu. Ez da erraza ez, tabernarien bizimodua. Erreportaia honek haien bizitzetatik ibilaldi bat proposatzen dizue. Zatozte tabernarien bizitza nolakoa den ezagutzera.

Testua: Javi G. de Herrero / Argazkiak: Mikel Martínez



Ü Patxi Lazkano

Adina: 40 urte.

Taberna: Basartena (Urduliz)

Lanaldia: Behar diren ordu guztiak eta zertxobait gehiago.

Historia: Oso ezaguna Urdulizen, Patxi aspaldian dauka Basartena taberna, baina barraren beste aldean behar egin arren, gizon honek baditu beste zaletasun batzuk, adibidez, figurante izan da hiru filmetan.

Esaldia: "Denetarik sartzen da taberna honetan, baina hori bai; jai bat antolatzen dugunean kristorrena izaten da. Jendea barra gainean dantzan ikusi dut nik hemen".

á B. Urberuagazumaran

Adina: 59 urte.

Taberna: Barrukoa (Algorta).

Lanaldia: 14 edo 15 ordu egunero.

Historia: 1990ean hartu zuen Begoñak taberna eta ordutik denetarik ikusi duela dio. "Nik kontaktuko banizu...", dio bere semeak.

Esaldia: "Getxo Rugby taldeak Errege Kopa irabazi zuenean kristoren jaia ospatu genuen hemen eta aurrean, eusten bdiote, garagar-do kupel bi oparituko dizkiet".



Euskal Herrian taberna ugari ditugu eta Uribe Kosta ez da salbuespena. Euskaldunok, antza, izugarri estimatzen ditugu biltzeko toki apropos hauek; biltzeko eta bide batez, tragu batzuk hartzeko, alajaina! Edonola ere, tabernen kopurua ia inon baino altuagoa da gure herrietan eta, beraz, mota ezberdinetako tabernak aurkitu ditzakegu Getxon, Sopelan, Leioan eta inguruko herrietan: kafetegiak, pub-ak, diskotekak eta jakina, betiko tabernak. Leku egokiak izaten dira hauek lagunekin elkartzeko, berba egiteko, eztabaidatzeko, edo Athletic-en partidua ikusteko garagardo edo kafe baten aurrean. Guztiok daukagu gure gogoko taberna kutuna; gure Cheers berezia. Ezta?

Nahiz eta sarritan, gure kontuekin gabil-

tzalako konturatu ez, barraren beste aldean tabernariak egoten dira, jo eta ke lanean gu zerbitzen. Ez da lan batere erraza hau. Beste gauza batzuen artean, jendearen mozkorrak, mozkortien arazoak eta bezero aldrebesen umore txarra jasan behar izaten dute. Hala ere, zerbitzari gehienek esan digutena egia bada, tabernetara jotzen duen jende gehiena jator xamarra izaten da. Eskarmentu handiko tabernariak ezagutzen dituzte ohiko bezeroen izenak, ohiturak, jarrerak eta gainera, aldeztatik ondo jakiten dute zer hartuko duten, eta tabernan sartzen diren bezain pronto jaritzen dizkiete poteak. Bezero horiek jeneralean, ez dute arazorik eragiten, baina taberna bakoitzak badauzka bere pertsonaia xelebreak eta tabernari gehienek egin izan behar diote

aurre inoiz herriko zoroari, betiko mozkortiarri edo kitzikariren bati. "Hori da txarrena—azaldu digu tabernari batek— hamar edo hamabi ordu lan egin ondoren eta ixteko zaudenean, batzuetan horrelako xelebreren batek zeharkatzen du atea, zirikatzen eta gainera hori egiteko eskubidea daukala uste izaten du...". Beste batzuentzat, berriz, txarrena ez da hori, baizik eta egin behar izaten dituzten lanaldi amaigabeak. Askok hamar, hamabi edo, negozioa euren baldin bada, hamabost ordu sartzen dituzte barraren atzeko leku estu eta labur horretan, soldata irabazteko. Gehitu horri gosaltzeko, bazkaltzeko, afaltzeko eta lo egiteko behar den denbora eta egunak ihes egin du. Elkarrizketatu batek esan digu: gogorra da tabernarien bizitza! m



Ü Isabel Fernández

Adina: 54 urte.

Taberna: Bilbo.

Lanaldia: 10 ordu (Algorta).

Historia: 1981ean hartu zuen taberna Isabelek, "la viuda" bezeroek ezagutzen duten bezala. Haietzat "Bilbo Taberna", "El bar de la viuda" da.

Esaldia: "Ezin naiz nire bezeroetaz kezatu. Orokorrean oso jatorrak dira guztiak. Inoiz norbaiti ahaztu egin zaio ordaintzea eta egun batzuk beranduago bueltatu da, diruarekin. Hori ez da leku guztietan gertatzen".

á Manu Kuetu

Adina: 36 urte

Taberna: Neba-arrebak (Berango).

Lanaldia: 10 ordu inguru.

Historia: Hamar urte baino gehiago daramatza gizon honek taberna honetan. Bezero gehienek izen deiturak buruz dakizki Koldok.

Esaldia: "Berangotarrak bereziak dira, benetan: Volldamm garagardoa kentzen badiezu taberna apurtzeko kapazak dira hauek".






Ü Txema Blanco

Adina: 36 urte.
Taberna: Trabudu (Astrabudua).
Lanaldia: Egurdiko hamabietatik itxi arte.
Historia: 1990tik dago lanean Txema berarena den taberna polit honetan, denbora horretan denetarik ikusi duela esaten du.
Ealdia: "Partidua dagoenean, egun osoa ematen dut lanean futbolaz eztabaidatzen Barsa eta Real Madrileko zaletuekin".

á Idoia Lazkano

Adina: 28 urte.
Taberna: Satistegi (Algorta).
Lanaldia: 40 ordu astero.
Historia: Bola luze batez kanpogan lanean ibili ondoren, duela urte bi egiten du behar Satistegiko sukaldean lapiko eta sartaginen artean pintxoak, bokata goxoak eta orain neguan, salda beroa prestatzen.
Ealdia: "Ez dut ikasten, egunero erretzen dut mingaina salda probatzerakoan".



Ü José María Martín

Adina: 38 urte.
Taberna: "Viejo café" (Algorta).
Lanaldia: Ez dauka; behar den guztia egiteko prest dago.
Historia: 1999ko irailetik lantzen dute José Mariak eta bere anaiak taberna hau. Partixa, dardoak eta domino dira nagusi; laster txapelketa bat antolatuko dute.
Ealdia: "Hona datorren jende gehiena kirolzalea da".

á Leire Rodríguez

Adina: 25 urte.
Taberna: Kurruku (Erandio).
Lanaldia: 12 ordu egunero.
Historia: Orain dela hiru urte hartu zuten taberna errentan eta Leirek dioenez, orduetik hona lan eta lan baino ez dute egin; astean zehar txikiteroen bisitak, kafeak eta abar; asteburuetan, berriz, gazte jendea.
Ealdia: "Egia esan, taberna oso ondo kokatuta daukagu Erandioko martxa kalean dago eta. Hemen ez dago aspertzeko astirik".




Ü Marije Nuñez

Adina: 42 urte.
Taberna: Gure Atea (Sopela).
Lanaldia: 10 ordu baino gehiago.
Historia: Taberna berarena da..., betidanik esan daiteke hogei urte baino gehiago eman dituelako bertan Marijek. Behin bezero bat lokala erosten saiatu zen, baina berak ezetz esan zion.
Ealdia: "Jende jatorra dator taberna honetara, baina baita ere herriko zoro guztiak".

á Irune Sánchez

Adina: 28 urte.
Taberna: Taberna Zaharra (Leioa).
Lanaldia: 9 ordu baino gehiago.
Historia: Bi urte daramatza taberna honetan, eta ederto ezagutzen ditu lurnek bezeroak. Batzuk ohizkoak dira eta beste batzuk etxeak eraikitzen ari diren langileak.
Ealdia: "Egurdian hau zorarena izaten da; jendez gainezka egoten da: pintxoak, kafeak, telefonoa... (une zehatz honetan telefonoak jo du eta zerbitzariak barrezka hasi da), ikusten?".



Ü Jon Arrizabalaga

Adina: 31 urte.
Taberna: Laiak (Sopela).
Lanaldia: 8, 9 edo 10 ordu..., egunaren arabera.
Historia: Hilebete barru irekiko dute taberna Arrik eta bere kideek, guztiak eskarmentu handikoak lanbide honetan. Jo eta ke lanean dabilza lehenbailehen zabalteko.
Ealdia: "Talo eta guzti salduko dugu tabernan. Lanak luzatzen ari dira, baina martxorako irekiko dugula uste dut".

á Naiara Lekanda

Adina: 25 urte.
Taberna: Sustrai (Algorta).
Lanaldia: 60 ordu astero.
Historia: Taberna baino lehen janaridenda izan zen Sustrai. Orain traguak saltzen lan handia dagoen, "Sustrai" hamaiketarako dago itxita asteburuetan. Goizetan berriz, goiz irekitzen dute.
Ealdia: "Pasadizo ugari kontatuzaket. Badago jendea ordaindu barik alde egiten saiatzen dena. Horiek in liburu bat bete liteke".




Ü Susana Villanueva

Adina: 33 urte.
Taberna: Taberna Berri (Algorta).
Lanaldia: 8 ordu egunero.
Historia: Asteburuetan hamaiketan puntu puntuan ixten da taberna. Ez dago gau girorik Taberna Berrin. Egunean zehar, berriz, beste gauza bat da.
Ealdia: "Jende lasaia da hona datorrena; orokorrean, oso jende jatorra, hori da orain arte behintzat, nik ikusi dudana".

á José M. Herboso

Adina: 25 urte, je je je.
Taberna: Taberna Txiki (Leioa).
Lanaldia: Egun osoa.
Historia: Leioan giro handia ez dagoen arren, dagoena "Taberna Txiki" dagoen kalean aurki daiteke, bereziki asteburuetan.
Ealdia: "Gosariak ematen ditugu, gero badatoz pintxoaleak, poteoa... Taberna bat baldin badaukazu, denbora libre ahaztu, ez dago ordutegirik".



Ü Joseba P. Arrizabalaga

Adina: 33 urte.
Taberna: Baste (Erromo).
Lanaldia: 12 ordu egunero.
Historia: Orain dela sei urte hartu zuela taberna eta ordutik denetarik ikusi du Josebak. Jende ezberdina pasatu da denbora honetan. Lehen martxa gehiago zegoen. Orain jende gaztea asteburuetan hurbiltzen da eta astean zehar poteoa da nagusi.
Ealdia: "Giroa pilo bat jaitsi da Erromon azken urteotan".

á José Manzano

Adina: 33 urte.
Taberna: Yanik (Erromo).
Lanaldia: Mila, milioi bat ordu...
Historia: Taberna familiarra da Yanik alokatu zutenetik, orain dela lau urte. Erromoko taberna ezagunenetakoa da, eta bertan zer jan eta zer edan topa daiteke eguneko edozein ordutan.
Ealdia: "Mota guztietako jendea pasatzen da hemendik".





Unai, kirol hegazkin bat pilotatzen Uribe Kostako zeruan

Unai Ormaza zeruko autopistetan gidari

Hogeita bederatzi urte baino ez ditu eta txikitatik izan duen ametsa beteta ikusiko du laster, hegazkin konpainia batean piloto izango da. Orain instrukzioa egiten ari da, begien aurrean etorkizun zabala.

Testua: Kristina Sangroniz / Argazkia: Mikel Martinez

Gaur egun gazteek zuzenbidea, medikuntza... ikasten dute, zerk bultzatu zintuen piloto izatera?

Txikitatik gustatu zait hegazkinekin zerikusia zuen edozer, eta gazte-gazterik banekien piloto izan nahi nuela. Piloto izateko ikasketak egin nahi nituela aitari esan nionean ez zen batere harritu, artean asmoa entzuna zuelako. Hala ere, ez daukat inolako aurrekari familiarrik.

Zer egiten zenuen konpainian sartu aurretik?

Ikasketak 21 urterekin bukatu nituen eta

ondoren, aurkitzen nuen edozein gauza egiten hasi nintzen. Kanariar irletan egona naiz hondartzetatik kartelak eramaten, argazkiak ateratzen edota giriak leku batetik bestera paseatzen. Kirol hegazkin edo abionetetan ere lantxoak egiten ibili naiz.

Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Egia esateko, orain oso gutxi egiten dut lan sartu berria bainaiz konpainian eta ikasten ari naiz, komandante batekin egiten dut hegan. Oraindik ezin dezaket esan lanbide honek eragiten omen duen estresa sufritu dudarik.

Zein da egin duzun bidaiarik luzeena?

Pasa den astean Helsinkin egon nintzen, lau ordu eta erdiko bidaia da. Baina bidaien iraupena hegazkin motaren arabera izaten da; gidatzen duzun hegazkinaren arabera, hegaldiaren iraupena desberdina izaten da.

Horrenbeste joan-etorriekin, ez duzu familia edo lagunekin egoteko astirik izango, ezta?

Denbora edonondik atera daiteke. Orain, lehen esan dudanez, instrukzioan nabil, eta denbora libre nahikoa dut. Hala ere, "pilotatzeko aske" uzten nautenean, libreki programablea izango naiz eta orduan, konpainiak "exprimitu" egingo nau, beti legearen barruan, jakina.

Beste lanbide batzuekin alderatuz piloto izatea gogorra al da?

Bai, lan latza da. Alde onak eta txarrak ditu lanbide guztien antzera. Gauzarik gogorrena etxetik kanpo denbora asko ematen dela

izan daiteke, eta bestalde, asko zaindu behar duela batek bere burua. Bizitza antolatua izan behar du norberak, nahiz eta ni, horretarako nahiko desastrea izan.

Sondikan gertaturiko istripuaren antzeko zerbait gertatu al zaizu?

Egia esateko ez, ez dut inoiz arazo larririk izan. Arriskua norberak bilatzen duen zerbait da eta hasieratik irakasten digute arazotan ez sartzen.

Edonor izan daiteke piloto ala psikologia bereziren bat behar da?

Baietz esango nuke, bai, burutik jota ez badago eta gustatzen bazaio. Badaude zailagoak diren ikasketak. Psikologiari begira argi izan behar den gauza bakarra zera da, bidaiari guztiek, doazen lekura doazela,

“Baietz esango nuke, bai, burutik jota ez badago, eta gustatzen bazaio, edonor izan daiteke piloto”

salbu eta lasai ailegatu behar dutela.

Aireportu bat eta hegazkin mota bat: Aireportu bat... ez dakit, beharbada El Alto de Bolivia aukeratuko nuke, eta hegazkina... 16 bat.

Bidaiariekin arazorik izan duzu?

Bidaiariekin dauden arazoak jeneralean, azafaten esku egoten dira. Baina, beno, arazoak egon daitezke hegan egiteari beldur dioten pertsonekin edota klaustrofobikoak direnekin. Edanda dauden pertsonekin inoiz gerta daiteke istiluren bat sortzea. Azken kasu honetan, komandanteak erabakitzen du pertsona hau hegazkinetik jaisten den ala ez, potentzialki arriskutsua izan daitekeelako.

Zer nahiago duzu, gauzez ala egunez hegan egitea?

“Baietz esango nuke, bai, burutik jota ez badago, eta gustatzen bazaio, edonor izan daiteke piloto”





Jon Bernardez

Aspaldian dabil argazkilaritzaren munduan murgilduta Jon Bernardez (Algorta, 1962). Arte Ederretako ikasketak egin ondoren, beharrezko hasi zen honezkero kaleratzen ez den Gexoko Galea aldizkarian 1985ean. Ondoren hainbat komunikabidetan argitaratu zituen bere argazkiak: Deia, Correo, Gaur Expres... Efe eta Reuters berri agentziek be, bere lanak euskaratu dituzte. Orain dela hamabi urte Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria Saileko argazkilaria da, bera izan da azken Lehendakarien argazkilaria ofiziala. Bere hitzetan "han irabazten ditu indabak".

Baina Joni benetan gustatzen zaiona kalean irudiak hartzea da "deigarriak iruditzen zaizkidan eszenak kaptatzea da benetan atsegin dudana. Erretratatuak nire presentziaz jabetzen ez badira, hobeto. Uste dut argazkilaria lekuko ikustezin bat izan behar duela eta bere begien aurrean gertatzen ari dena jaso behar duela eszena, une horretan eragin barik".

Berak zuri-beltzaren teknika izugarri maite du baina "izen handiko argazkilaria ez bada bat, nekez sal diezazkioke horrelako lanak agentzia bati. Nik asko estimatzen ditut, Magnun agentziako hastapeneko argazkilaria: Cartier Bresson..., Ellen Mark eta baita Salgado bera ere. Azken batean, bere lana zintotasunez betetzen dutenak". m





UKDJ's

Garaiak aldatuz doaz eta

musikan zer esanik ez.

Adibidez, Woodstock-eko

jaialdi mitiko hartan baino lau

aldiz lagun gehiago elkartzen

dira urtero Berlinean egiten

den musika elektronikoan

jaialdian. Musika berri hauen

maixuak disc-jockey-ak dira,

alegia, dj-ak. Uribe Kostako

laurekin egon gara.

Testua: Jokin Aspuru / Argazkiak: Mikel Martinez

Zer da dj bat? Bere izenak dioten moduan, disc-jockey-a musika nahasten duen pertsona baino ez da. Biniloa sortu zenetik daude disc-jockey-ak, baina azken urteotan musika elektronikoak izan duen bultzadagatik protagonismo handia hartu dute. Hona gauzak beti berandu ailegatzeko dira, baina munduan oso hedatuta dagoen fenomeno da. “Alemanian adibidez, edozein elektrodomestiko dandatan dj batek behar dituen tresnak topa ditzake, hemen denda espezializatueta baino ez” adierazi digu Juanek, DJ Bazz izena erabiltzen duenak. “Europa osoan, zaletasuna itzela da, ‘home dj’ izenaz ezagutzen dena, pertsona oso arrunta da. Koadrila gehienetan egoten da horrelako lagun bat, lagun arteko jaietan musika jarri eta nahasten duena”. Aitzolek berriz (DJ Hurakan), fenomenoaren garrantzia azpimarratzeko beste adibide pare bat eman dizkigu: “Londresen eman nuen denboraldi bat eta nire etxe ondoan, dj-entzako baino ez zen denda bat zegoen, denetarik topa zitekeen han, dj batek behar duen guztia. Horrelakorik hemen pentsaezina da. Beste adibide bat, honezkero merkaturatzen Barbie DJ eta Ken DJ panpinak salgai daude”. Xabierrek (DJ Psiko) hain urrun begiratu barik, Bartzelona edo Madril aldean, hemen oso atzeratuta gabiltzala esan digu “hemen gauzak egin egiten dira, baina ez dago beste leku batzuetan egoten diren dj-entzako zirkuito bereziak”.

Baina lehen esan bezala, emankizun

batean bere gustuen arabera musika nahasten duen pertsona da dj-a, horregatik aukerak amaigabeak dira. Sarritan dj-ak eta tekno musika lotzen dira, baina hori aukera bat baino ez da. “Hori diskoteken eraginagatik gertatzen da, dj-aren irudi topikoa da eta ez du horrela zertan izan behar. Kontua da modan jarri dela” azaldu digu Bost tabernan saioak egiten ohi dituen Gaizkak, Funk Fu-k. Gainera, askotan jendea dj bat dagoen lokaletara doa, baina ez dira joaten dj hori entzutea, baizik eta beste lekurik zabalik ez dagoelako. Izan ere, dj-en emankizunak gozatzea propio joateko zaletasuna ez dago oso zabalduta gurean. “Lokaletako jabeek euren gustuko musika jartzea eskatzen dute askotan, eta hori ez da kontua. Jakina lekura moldatuta beharra dago, baina dj-ak bere proposamen propioa eduki behar du, bere emanaldia egiten du”. azpimarratu du Aitzolek. Proposamen hauek era askotakoak izan daitezke. Estiloen zerrenda amaigabea da eta gainera estilo bakoitzak baditu bere aldaerak: house, house progresiboa eta hard house adibidez, funky, trance, drum and bass, hip-hop, teknoa, makina, goa... Zoratzeko modukoa!

Biniloa edo CD

Biniloentzako plater bi aurrean dituela izaten da gogoan daukagun dj-aren ohizko irudia eta gainera, esan esaten da, biniloak irauko badu, dj-ei esker izango dela. “Nik biniloak eta CDak erabiltzen ditut, ez naiz

Funk Fu free style

Apaltasun apur batekin, mundu honetan hasiberria dela diosko Gaizkak (Funk Fu), ikasten ari dela. “CDak nahasten ditut nik, denborarekin biniloekin ere egin nahi nuke, oraindik ikasteko asko daukat”. Gaizkak, jai partikularretan eta Algortako Bost tabernan antolatzen dituen dj saioetan parte hartzen du sarritan. “Niri era askotako musika jartzea gustatzen zait, saio berean soul apur batekin hasi naiteke, geroago hip-hop-era pasatu eta drum and bass-arekin amaitu, hau da, estilo desberdinak nahastea gustatzen zait. Baina horrek jakina, zentzu bat izan behar du, saioan progresio bat egon behar du eta kantak bata bestearekin nahasteko egokiak izan behar dute. Ni hori egiten saiatzen naiz behintzat”. 1

“Hasieratik argi gera dadila: disc jockey-ak eta bakalaoa gauza desberdinak



DJ Hurakan

trance

Aitzol musikagatik eta musikarako baino ez da bizi, eta hitz egiten dugunean berotzen da. Hemen ezer gutxi zegoenean, bere kabuz eta bakarrik hasi zen ikasten. Berak disc-jockey-aren figura ozenki aldarrikatzen du: *“niretzat dj-ak jaiaren erregea izan behar du, zeremoniaren gurutza. Garrantzitsua da bere presentzia; jendeak ikusi behar du. Animatea izan behar du, nik ez dut baztertzeko aurrerantzean musika nahasten dudana aldi berean neurtzeko mikro bat erabiltzea”*. *“Bestalde, oinarrizko gauzak jakin barik, dj moduan aurkezten den jende asko omen dabil hortik”*. Baina Aitzolek batez ere musika sortzailatzat du bere burua. Orduak eta orduak ematen ditu logela eta aldi berean estudioa den bere gelan, kanta perfektua osatu nahian. *Trance* deitzen den musika gustatzen zaio —nahiko kañeroa, zehaztu digu berak— eta mota horretako kantak konposatzen ditu. Entzun nahi dituenak internet-en badu aukerarik helbide honetan: stage.vitaminic.es/aitzol_unzurrunzaga_garate/ Eta inork kontratatu nahi badu: djhurakan@terra.es |

“Oinarrizko gauzak jakin barik, dj moduan aurkezten den jende asko dabil hortik” —DJ Hurakan

American pshyco nobela odoltsutik omen datorio Xabierrri bere izen artistikoa, beharbada izen hori ez dator bat berak jartzen ohi duen musikarekin batez ere *house* deitzen den horretan mugitzen delako, *“baina house-a oso zabala da eta saioetan joera horiek guztiak elkartzen eta nahasten saiatzen”*. *“Sarritan dj ezagun bat entzuten duzunean beti musika bera entzuten ari zarela ematen du. Nire kontzeptzioa alderantzizkoa da. Nahasketak errepetatuz, ahal dudana musika gehien jartzen saiatzen naiz”*.

Xabierrek, hilabetero bere diskoak besapean hartu eta Plentziako La Carolina-n (inguruan dj-ak programatzen dituen lokal gutxienetakoa) saioa egiten du. *“Niretzat saio batek, performance bat izan behar du, antzerki edo pelikula bat bezala; hasiera bat izan behar du, gero korapiloa dator eta azkenean, bukaera”*. Xabierren saio bat brasildar edo afrikar ikutuko musikaren hasi daiteke, gero erritmoa azkarragoak hard house-era (teknotik hurbil) heldu arte, eta azkenean soinu lasaia goak berriro. Ez zaio berandu musika jartzea gustatzen, bere saioak gaueko 11etatik goizeko 3ak izaten dira *“beranduago egiten baduzu badakizu zer nolako giroa izan dezakezun. Oso gutxi den arren, nora eta zertara doan jendearen aurrean pintxatzea gustatzen zait, publiko horrekin komunikazio bat lortu”*. |



DJ Bazz

latin beats

“Hasieratik argi eta garbi gera dadila, dj-ak eta bakailoa gauza desberdinak dira, gitarra jotzen baduzu ez du esan nahi rockrola egiten duzunik, ba gurekin gauza bera gertatzen da”. Horrela mintzatzen hasi zaigu Juan, aldi berean musika sortzailea eta dj-a. Bilboko *Caos*-en, Algortako *Bost* tabernan jartzen ohi du musika, eta beste areto batzuetan antolatzen dituen jaialdietan ere. *“Niretzat garrantzitsua musika bera da, kantak dira eta horregatik nahasketa onak, egokiak baina laburrak egitea gustatzen zait. Dj-ak kantak aukeratzen ditu, hau da, bere lanik garrantzitsua bere gustu musikalari jartzea da, niretzat behintzat. Bestalde dj-ak, eta hori da politena, giro bat sortu behar du, baina giroa sortzeko ez du esan nahi jende guztia etengabe dantzan egon behar duenik. Nolabait, nik deitzen dudana ‘dantzaren diktadura’ horren kontra nago, hau da, edo dantza egiten duzu edo ez duzu ondo pasatzen”*.

Bere saioak iragartzen duten flyer-etan horrela aurkezten dute Juan: *DJ Bazz, latin beats*. Eta zer esan nahi du horrek? *“Ba, zerbait jarri behar da iragarkietan eta horrela jartzen dute. Baina nik batez ere fusioa egiten dut. Aspaldiko musika izugarri gustatzen zait, jazz, soula, latino, orokorrean musika beltza, eta jakina musika elektronikoa ere bai”*. *“Lehen esan dizudan bezala, dj-a disko asko eta gustua duen pertsona da; disko onik ezean, saio onik”*. |

“Nolabait, nik deitzen dudana ‘dantzaren diktadura’ horren kontra nago, hau da, edo dantza egiten duzu edo ez duzu ondo pasatzen” —DJ Bazz

biniloaren purista, soinu badago alde bat baina ez du edonork igartzen” dio Juanek. *“Nik, —eta beharbada inork esango du, hau burutik jota dago—, CDak baino ez ditut erabiltzen, horrela hasi nintzen eta gainera aukera mordera eskaintzen dizkit. Biniloak nahastuz CDak nahastuz lortu ezin daitezkeen efektuak ateratzen dira, baina baita alderantziz ere. Gero eta leku gehienetan ikusten dira CDak nahasteko tresnak eta hori zeozergatik izango da”* gaineratu du Aitzolek. Gaizkak berriz, CDeekin lan egiten badu ere, biniloak ondo erabiltzen ikas-teko asmoa duela esan digu. Xabierrek ostera bere diskoteka digitalizatzen dabil, orain eusgarri biak erabiltzen ditu baina *“uste dut laster agur esango diodala biniloari. Orratzak zein diskoak oso garestiak, oso hauskorrak dira eta gainera lortzeko zailak, gainera CD-ak askoz erabilgarriagoak dira niretzat”*.

Nahasketa Zer esanik ez, jartzen duen musikaz gain, kanta bat bestearekin nahasteko trebetasuna izaten dela dj-engan estimatzen dena. Modu asko daude hau egiteko, baina badago urrezko araua deitu dezakegun zerbait. Modu labur batean azalduta, honetan datza: kanta bakoitzak badu bere abiadura, BPM-tan neurtzen dena (hau da, bonboak minutuko). Musika azkarra (makina, bakalao...) minutuko bonbo asko ditu, erritmo lasaia goek, berriz, gutxiago. Dj-ak nahasketa egin behar duenean, kante izaten dituzten abiadura desberdinak berdintzen saiatzen da. Emaizta, ondo eginez gero, trantsisio garbi bat da. Jakina, gero badaude beste mila baliabide (efektuak sartu, scratch-a...) baina hau menperatzen ez duenak, nekez izango da dj on bat.

Bestalde, kontuan hartu behar da, kanten bertsio desberdinak grabatzen dituztela egile askok. Adibidez, radio edit izenez eza-

gutzen dena, irratietarako bereziki grabatutako bertsioak izaten direnak, ez dira nahasketarako egokiak izaten bertsio laburrak direlako (irratietan ez dituzte zortzi minutuko kantarik jartzen). Beste bertsio mota batzuk, dj-ei euren lana errazteko egiten dira bereziki. Extended edit izenez ezagutzen dena izaten da hau, eta bere izenak dioen bezala kanten bertsio luzatuak izaten dira. Hasiera zein bukaera luzekoak dira eta horrek nahasketarako aukera gehiago eskaintzen ditu. Hala ere, dj on batek jarri behar dituen kanta guztiak aurretik hamai-ka aldiz entzunak izaten ditu, buruz dakizki, badaki zein kanta nahas daitekeen ondo hurrengoarekin. Izan ere, saio batean inprobisaziorako lekua dagoen arren, alde aurretik etxeko lanak egiten ez badira, zaila da inprobisatzea.

Baina teknikaz eta baliabideez gain, jartzen den musika eta sesion edo saioaren osotasuna da garrantzitsua —eta honetan gure

Joan Mari Irigoien

Euskal literaturako pisu astunetako bat

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel Martínez

Euskal kulturgintza azkenaldian jasotzen ari den erasoek kezkatuta daukate Joan Mari Irigoien. “Alderdi politikoak ados jartzea beharrezkoa da, bestela etorkizun beltza datorkigu”. Baina erasoak-eraso, Irigoienek idazketaren bidez euskal kulturarekiko duen konpromisoa betetzen jarraituko du. Orain dela 25 urte irakurri zuen Axularren Gero, eta mirestuta geratu. “Elkarrizketa sinboliko bat izan nuen berarekin, eta egunen batean berengana itzuliko nintzela esan nion, bere prosak aukera handiak ematen dituelako ez bakarrik gauza xumeak esateko baizik eta konplexuagoak esateko ere”. Eta bere hitza bete egin du. Lur Bat Haratago Altzako idazleak argitara eman duen azken liburua da, orri kopuru zein eduki aldetik nobela arras mardula.

Antzinako gertaerak kontatzeko zaletasuna duzu. Nondik datorkizu zaletasun hori? Antzinakoak badira, baina geure belaunaldiez idatzi nuen Udazkenaren Balkoitik nobelan ere, eta Kalamidadeen Liburua-n ere oso erregistro ezberdinak daude. Dena dela, niretzat iraganaz hitz egitea orainaz hitz egitea bezalako da. Funtsean, gizon-emakumeok berdintsu jarraitzen dugu. Noski, aroz aro gure janzkerak aldatuz doaz, eta horiek egiten dute narrazioa mendebaldean edo beste nonbaiten kokatua izatea. Baina nik iraganaz hitz egiten dudanean beti presente izaten dut gaurko gizon-emakume hori.

Azken joera egunerokotasunari buruzko kontuak idaztea omen da. Zuk zeuk halako gogorik al duzu? Ikusiko dugu. Ni beti izan naiz nahiko bromazalea, eta lagun batzuek esaten didate horrelako izanda nola idatz ditzakedan halako dramak. Gehienetan gaiek aukeratzen naute ni. Obsesio bat bezala, ideia xume bat darabilt bueltaka eta azkenean konturatzen naiz haren menara nagoela. Egunerokotasunari buruz idaztea? Gaurko gazteek esaten duten moduan, gorputzak eskatzen didanean aterako dut. Hala ere, ni oso mesfidati naiz. Garai bateko abangoardiek bazuten zentzu bat. Esate baterako, pinturan garbi ikusten da nola klasizismoaren ondoren inpresionismoa etorri zen, eta gero kubismoa eta beste mila kontu. Baina jada guztia asmatuta dagoela uste dut, formen aldetik

batez ere, eta garrantzitsuena zera da: bakoitzak forma horiek ondo baliatzea, modu batean edo bestean istorio batzuen bidez bakoitzak bere mundu propioa eraiki dezan.

Nik bizitza zirkulu baten moduan ulertzen dut, espiral bat nahiago nuke baina... Zer gertatzen da orduan? Gaur egunean literatura mota bat modan baldin badago, hemendik 15 urtera ez dela horrela izango. Eta betiko liburuak, berriz, ez daude sekula modaz kanpo. Horrek ez du esan nahi Erdi Aroan bizi naizenik. Lehen esan bezala, idazleak jakin behar du irakurketa egiten, beste idazleengandik forma horiek bereganatzen eta gero bere sorkuntza propioan erabiltzen.

Durangoko azokan libururik salduena, irakurleek goraiatua... Halakorik espero al zenuen? Ez, beste liburuei begira badakit halako irakurle goial bat daukadala atzetik. Konzientea naiz horretaz. Baina liburu honekin 3.000 ale salduko nituela esan izan balidate, momentuan izenpetuko nuen. Zergatik? Gure merkatua oso murrizta da, eta halako liburukote batentzat oso kopuru handia da. Nire sorpresarako hiru mila aleak hilabete bakarrean saldu dira, eta orain bigarren argitalpenean beste bost mila atera dituzte. Ez dakit nola joango den. Baina niretzat sorpresa handia izan da.

Beldur zinen ez ote zuen liburuak harrera bero-egirik izango?

Hori gerta zitekeen eta gerta daiteke. Liburua orain dela gutxi atera zen, eta irakurtzeko denbora pixka bat behar da. Baina lagun batzuen kritikak jaso ditut eta pozik nago. Posible zen liburua bazter batean gelditzea, askotan gertatzen da. Baina gauzak beste bide batetik abiatu dira, eta hortik aurrera nik ezin dut kontrolatu.

Zelan definituko zenuke Lur Bat Haratago? Idatzi duzun obrarik biribilena dela esan daiteke?

Apustuaren aldetik bai. Baina liburu bakoitza apustu bat da. Eta liburu bakoitzak planteamendu diferente bat eskatzen du. Kalamidadeen Liburua eta Consumatum est konparaezinak dira, baina hor garbi ikusten da alde aurretik nik neure buruari hori finkatu niola. Dena den, apustu bat neurtzeko beti jakin behar da nondik abiatzen garen eta nora

alegatu nahi dugun. Nik esango nuke momentu batean nire apusturik handiena Poliedroaren Hostoak izan zela, eta orain Lur Bat Haratago. Bizi banaiz, hemendik hamar urtera beste apustu bat egitea gustatuko litzaidake Axularren inguruan. Bitartean, obra arinago batzuk egitea gustatuko litzaidake. Ni idaztetik bizi naiz, Elkarlanean argitaletxearekin lotuta nago, eta, horregatik, liburu bakoitza ahalik eta duintasun handienarekin egiten ahalegintzen naiz.

Zer irakurtzen du gaur egun Joan Mari?

Bi urte eta erditan ibili naiz liburu hau idazten, eta tartean tuberkulosia harrapatu nuen. XVII. mendean bizitzea badakizu zelakoa zen. Apenas zegoen berogailurik eta tuberkulosiarekin bueltatu nintzen XX. mendera, eta osatu egin nintzen eta berriro itzuli nintzen XVII. mendera. Bitartean, XVII. mendeari buruz idatzi ahal izateko neure burua jantzi behar izan nuen. Orduan, giro horiek guztiak neureganatzeko hirurogei liburu inguru erosi eta irakurriko nituen. Orain nahiko nuke arnas pixka bat hartzea, eta atzean ditudan liburu batzuk irakurri. Azken hiru urteotan ezin izan dut irakurri nahi bezala gure literatura. Hala ere, Juan Luis Zabalaren Agur Euzkadi eta Luis Mateo Diezen nobela bat ari naiz irakurtzen, baina oso tarteka. Nobela egin ondoren, itzulpena egiteko eskatu zidaten eta halako lanak badakizu zelakoak izaten diren...

Klaseko testuliburuetan euskal idazle handietako baten moduan ezagutu genuen Irigoien. Idazle handi izate horrek zer suposatzen du zuretzat?

Pozgarria da. Lehen poemak 21 urterekin atera nituen, eta argi neukan ahal banuen idaztera bakarrik dedikatuko nintzela. Hortara, gaurko egunean hori esan dezaket, baina honako bidean denbora luzean ibili naiz ikastoletan eskolak ematen, eta diru gutxi irabazten nuen. Dirua beharrezkoa da, baina nire beharrak bete baldin badituzte, nire kapitalik handiena denbora da. Ondoren, ETBrako ibili nintzen film batzuk itzultzen eta egokitzen. Diru gehiago irabaz nezakeen, baina ez zitzaidan interesatzen. Niretzat garrantzitsuena da nork bere buruarekin duen konpromisoa, eta hortik aurrera sariak baldin badatoz ongi etorriak izan daitezela. Baina hori bigarren mailakoa iruditzen izan zait beti. m

Duela gutxi argitara eman du euskaraz sekulan idatzi den nobelarik mardulena Joan Mari Irigoienek: Lur Bat Haratago. / Bere berbak dira: “niretzat garrantzitsuena da nork bere buruarekin duen konpromisoa”

[akabuko punte]

Getxokotoponimia

Ille onetan Amagoia Aurrekoetxea eta Sofia Suso-as egon gare. Getxoko Udalak eta Euskaltzaindiak alkarlanean Getxo udalerriko toponimia inbestigateko beka atera euden eta neska gaste onek irabastea kontzigidu euden. Baya ser da toponimia? Urrengo lerrotan aik eurek kontakotuzue.

Testua: Alberto Gonzalez Castro / Argazkia: Mikel Martinez

Zuon presentaziñoa ingo dosue, ezta? Amagoia: Ni yayo, Bilbon yayo nintxen. Izatez, Berangoko nas. Nire gurasok Berangoko dire biek. Euskal Filologia ikisi dot. Sofia: Eta ni Gasteizkoa naiz eta gurasoak hangoak, Forondakoa bat eta Trebiñokoa bestea. Neuk ere Euskal Filologia ikasi dut.

Zer da toponimia?

A: Toponimia lekune usenak ikisten deusan zientzia da.

Getxokoa inbestigaziñoa itteko sein metodo usako dozue?

S: Hasieran bilketa egingo dugu, artxiboetara, Diputaziora eta horrelako lekuetara joango gara. Eta gero iturri dokumentaletara joko dugu. Ondoren iturri dokumental horien hustuketa sistematikoa egingo dugu. A: Aldaerak ikusi. 1730en selan agertzen san, 1810en selan... Ori dusti bildu. Badekogu leitzeko, es pentza!

S: Eta gero, bada, behin materiala antolaturik, ahozko datuak bilduko ditugu eta beno, aurkitzen ditugun hitzak kokatu behar ditugu mapetan, mapa kartografikoetan...

A: Onetarako lekukok ber dus eta euskaldunak ixen ber dire. Ganera grabazioak itteko kontus ibil ber du. Se esin dosu preguntata “olan geitten da leku hau?”

S: Zera galdetu behar duzu: atzean dagoen menditoxa edo iturria nola deitzen da eta hark berak esan izena.

A: Eurek betikoa: grabadora ikusi eta akabu! Suk esaten badosu, txarto esanda bere, eurek baietz esango dotzue. Itzi ber dotzues eureri esaten. Hemen esan ber da be eta oso inportantea da guk, eukiko dula dusti

Euskaltzaindiak kontrolatuta. Eta beka zuzendaria bere badeku. Bai Mikel Gorrotxategi Onomastika Batzordeko idazkaria da eta lagundu dosku oiñ arten itzell! S: Bilduko ditugun izen eta datu guztiak fitxetan antolatuko ditugu. Fitxa bakoitza arlo desberdinak ditu: izen normalizatu, aldaerak, iturriak (ahozkoak zein idatzizkoak), oharrak...

A: Akabun, fitxa baktzan komenta dun dusti, aldaerak, dokumentutan topa dosusan aldaera dustik, ahozkoak bere bai, danak, apur bet toponimikon karneta ixengo da fitxa ori.

S: Hitzaren deskribapena, zer den, menditoxa, aldapatxu bat, ...

A: Azken finean, gero dusti udalaren esku geldituko da eta udalak erabakiko dau usena aldatu behar bada, edo es. Gurea ittea da.

Nos hasiko sare?

S: Orain arte irakurri baino ez dugu egin: toponimia zer den, “Onomastiko Baskonia”, eta holako gauzak. Orain arte toponimiaren inguruan egindako lanak; batez ere, nola antolatu behar dugun lana, inkestak... Hasi benetan, orain hasiko gara.

Eta emeko toponimiñe ganen iñ da eser oiñ arten?

A: Badau; Juan Bautista Zabala eskola orrek seoser iñ dau kalen usendegiñe ganen. Gero, Getxoko istorioa leidu ber du, or bere ikusi dusan eruedetan, hasieran agertzen dire olau gausak. Kontu da behar au ixen leitze liste bat eta beste barik, baina batzuten, usen orrek seoser badeko atzen, seoser pasa dalako edo. Ori bere imintea polita da.

S: Izan ere, zerrenda hutsa baldin bada, azkenean ez da irakurtzen, txapa hutsa da. Euskal toponimian seri itten deutze erreferentzia usenek, normalean?

S: Kokapena, goitizenak, abizenak, lekuak edo patronimikoak izan daitezke, adibidez.

Sein ixengo da zuon estudioa itteko artuko dosuen sone?

S: Getxoko udalerrria

A: Gure beharra, printzipioz, ez da etimologia ori aztertzea. Beka da begiratzeko, nik pentzaten dot geiao leku txikiaoko toponimia ixengo dala: errekek, baserriak... olau zerak. Algorta eta olakoak esin dire aldatu. Guk in ber duna da dokumentatu: es dakitx sein momentutan olan erabilli da eta es dakitx ser beste momentutan selan; eta se usen berko litxike, baya es esaten au dator emeti eta au emeti. Ori gu gura badu iñ, baya, printzipioz, emen eskatzen dana biltzea da, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatu, baya es, etimologiñe ganen es da eser aipatzen. Ori gure esku geldituko da. Gero betiko, sera, atzo klasen bere komenta gendun selan batzuten aldatzen danen seoser... , eta Berangon olan gertatu da. Se Euskaltzaindia dau beste alde batetik itten herri duztiñe toponimia, erriñe usenak normalizatu eta ausoak bere. Eta seoser aldatzen danen, jende dustik deko seoser esateko; esan gura dot, ideiarik es ixen, eta beti dau batan bat or eta “au zeaitxik, beti ixen da es dakitx ser eta”

Nos pentzaten dosue akabako dosuela?

S: Printzipioz, hamalau hilabeteko epea daukagu; beraz, orain hasten bagara dato-



rren urteko maiatzean bukatu beharko genuke, baina esan digute kriston lana dela eta seguru aski luzatuko dela. Baina beno, suposatzen da guk epe hori daukagula.

A: Bai, es dakiu. Beno, Mikelek kontrola ingo dau...

S: Hiru hilabeterik behin.

A: Epe orretan berak ikusko dau ser iñ dun eta sinatu es dakitx ser, eta hori Udalari pasatu, selan gabiltzesan seoser itten eta aurreratzen beharrean. Eta ikusten badaue bagabiltzesala baya es dula akaba, orduan lusetuko da.

Eta argitaratu?

S: Hori Udalak erabakitzen du, hor kajioan gordeta utziko duten ala argitaratu.

A: Nik pentzaten dot intenziñoa badala erabiltzeko. Hiru urte deuke erabiltzeko argitaratuko dauen ala es. Eta or guk es du ser esanik. Lana, berez, gurea da, baya eurek dauke eskubidea iru urtetan. Beno, nik pentzaten dot bai usateko dala, oso interesatuta ikusi nedusen. Ganera Getxo oso erri inportante da Euskalerrian biztanlen aldetik, diru aldetik... Gure beharra ejenplu ixen leitze beste erri batzuten gausa bera itteko. m

Gureberbakere¹ AGURRAK

Testua: Xabi Bilbao

Akabuko Punteko kuadruxu barri honetan ikusi ingo du, apurke-apurke, zelan esaten direzen gauzak Uribe Kostako euskeran. Gure helburu ixengo da bertako euskerarik ez dakienari lagundute bertako euskere ulertuten, eta gure badau, bertako euskerako gauzatxu batzuk ikisi eta erabiltzeko bide emote.

Berbatan hasteko zer esan

AGURREK

egunon, arrastion, gabon,
áupa! / épa!
áupa, aspaldiko!

zélan?
zélan zauz? / zélan zauze? /
zélan gauz?
zélan zabiltzez? / zélan zabiltzeze? /
zélan gabiltzez?

ERANTZUNEK

ondo / ederto
ondo nau / ondo gauz
ondo nabil / ondo gabiltzez
enabíl txarto / ezkabiltzéz txarto
enabíl (lar) ondo / ezkabiltzéz (lar)
ondo

betikó lez
hemen nau / hemen gauz
txarto ez eta, ezín keja
hálan-hólan

ADIBIDE BATZUK

-Egunon, Jose Mari. Zélan gabiltzez?
-Egunón bai, hemen nau, betikó lez.
Zu zélan zauz ba?
-Ni záharrau eta txárrau.

-Aupa neskáto, zélan?
-Aupa, hemen náu begíre, ía autobuse
noz datórrren. Zu zélan?
-Zau ikúste betí ondo.

OHARRA: Azentuk imini duz berba batzuten, eta beste batzuten ez. Azenturik ez dekon berbe esakunen erdin badau ez da azenturik ahoskatu behar; osterá, berba hori esakunen akabuko bada edo koma baten aurren badau, azentu ahoskatu behar da azkeneko bokalan ganen. Hau astiroau ikus-

“Hamalau hilabeteko epea daukagu; beraz datorren urteko maiatzean bukatu beharko genuke ikerketa”

LAINOA

Urgull 3, ALGORTA

PINGOQUIN
MONASTERIO

Torrene 9 ALGORTA Tel. 94 460 95 35

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

Gazteen belaunaldia

Jakina da bertsolaria egin egiten dela eta denbora eta plaza asko behar izaten dela bertsolari osoa izateko. Bertsolaritzan, beste jarduera askotan legez, elite maila dago. Elite maila horretan bakan batzuk baino ez dira ibiltzen, eta maila horretaraino heltzeko bidea ez da izaten batere samurra. Helduta ere, lanak ditu goiari eustekak. Bada, kontu egizue zer izango den, elite maila horretan talde bat ondo finkatuta dagoela, euren artean lekua egitea. Horrek, baina, meritu handiagoa ematen die behe-behetik hasi eta gailurreraino iristen diren gazteei.

Testuak: Josu Arroio eta Joseba Santxo / Argazkiak: Xenpelar dokumentazio zentroa

Datorren martxoaren 23an, barikuan, sei bertsolari gazte kantatuko dute Algortako Getxo Antzokian iluntzeko 8etan hasita. Bertso jaialdi honek badu aurrekaririk. Orain dela 10 urte antolatua genuen jaialdira –Algortako Zabala ikastetxeko aretoan egin zen– orduko bertsolari gazteak etorri ziren onenak ematera. Orduko batzuk bertso gintza bazter utzita daude, baina beste batzuk onenak ematen jarraitzen dute. Izan ere, elite mailan aritzen dira, etorriak eman ahalean. Talde horretakoak ditugu: Jon Sarasua, Jesus Mari Irazu, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia... Orduetik hona, urtean-urtean antolatzen izan dugu gazteen jaialdi hori, baina iaz ohartu ginen larregi tiratzen ari ginela behialako zerrendatik eta, orduan, goia jotako bertsolariak barik (oraindik adinez gazteak diren arren) gazte gazte-agoak ekartzea pentsatu genuen.

Iazko jaialdira hauexek etorri ziren: Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Ekaitz Goikoetxea, Jokin Uranga, Alfredo Paia eta Etxahun Lekue. Antzokia polito itxuratuta zen jendez eta sei-seiok saio ederra burutu zuten. Jon Maiak ere bikain egin zuen gaijartzaile lana. Aurtongo apustua bide beretik dator. Hona hemen kantuan arituko diren sei bertsolari gazteen izenak: Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Nerea Elustondo, Inaki Gurrutxaga, Alfredo Paia eta Etxahun Lekue. Ikusiko duzuenek, izen batzuk errepikatu egin ditugu, baina sarreraxotan esana dugu eliterantzko bidea estu samarra dela. Halandaze, inori ezer kendu barik, baina bakoitzari tokatzen zaiona eman guran, ez dugu uste sei gazte horietako bat bera ere sobera dagoenik, jakinik ere talde horretan egoteko moduko bertsolari gazte gehiago, zorionez, egin badagoela.

Maila horretako bertsolari taldeak tainako gaijartzailea behar zuen. Alde horretatik ziur gaude horretarako aukeratu dugun Andoni Egañak ezin hobeto beteko duela gora begira datozen sei gazteei gaijartzeko beharlekua.

Denborak esango du abidan datozenak noraino ailegatuko diren, eta goian dabilzanetatik nortzuk nekatu edo baztertuko diren. Batzuei eta besteek zortetik onena opetsiz, eta zuei jaialdi tentagarri horretarako dei eginez, 23ra arte agurtzen zaituztegu, lehenago bertso saltsaren batean ikusten ez bagara. m

Martxoaren 23an Getxo Antzokian

Gaijartzaile: Andoni Egaña

ETXAHUN LEKUE



(1979-12-13)
Larrabetzuarra.

1997 Uribe Kostako Bertsolari Txapelketan txapeldun.
1998 Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalerdietara heldu zen.
1998 Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan txapeldunorde.
1999 BBK Sariketan txapeldun Txorierriko taldean.

SUSTRAI KOLINA



(1982-10-20)
Urruñan bizi da eta Baionan Zuzendaritza ikasten dabil. Hendaiaiko Bertso Eskola aritzen da.

1998 Xaltoa Sariketan txapeldunorde.
1999 Iparraldeko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan txapeldunorde.
1999 Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan txapeldunorde.
1999 Kabi Goitia Bertso Paper Lehiaketan lehen eta bigarren sariak.
2000 Nafarroako eta Iparraldeko Bertsolari Txapelketan finalista.
2000 Euskal Herriko Eskolarteko txapeldun.

INAKI GURRUTXAGA



(1981-06-01)
Oriotarra. Euskal Filologia ikasketak egiten dihardu Gasteizen. Bertso eskolatan aritzen da irakasle. Gabon Gasteiz liburua argitaratu berri du (Arabera, 2000).

1999 Gipuzkoako Eskolarteko txapeldun.
1999 Orio Bertso Paper Lehiaketan irabazle.
2000 Orio Bertso Paper Lehiaketan irabazle.
2000 Manuel Lekuona Bertso Paper Lehiaketan bigarren saria.
2000 Basarri Bertso Paper Sarian bigarren.
Beste hainbat literatur nahiz bertso paper lehiaketatan parte hartu izan du, baita bat-bateko bertso sariketa eta txapelketetan ere.

NEREA ELUSTONDO



(1981-09-15)
Legazpiarra.

1995 Orixe Bertso Paper Lehiaketan irabazle.
1998 Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan txapeldun.
1998 Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan txapeldunorde.
2000 Osinalde Sariketan txapeldun.

AMETS ARZALLUS



(1983-11-09)
Hendaiaarra. Lizeoan ikasten dabil.

1997 Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan txapeldun txikien mailan.
1998 Xaltoa Bat-bateko Bertso Sariketan txapeldun.
1998 Manuel Lekuona Bertso Paper Lehiaketan lehen saria gazteen mailan.
1999 Iparraldeko Eskolarteko Txapelketan txapeldun.
2000 Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapeldun.
2000 Martin Sariketan txapeldun.

ALFREDO PAIA "FREDI"



(1981-03-24)
Algortarra. Enpresa ikasketak hasi ditu Deustuko unibertsitatean. San Nikolas Ikastolan hasi zen bertsolaritzan lantzen.

1994 Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan txapeldunorde.
1997 Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan txapeldunorde.
1998 Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan txapeldun.
1998 Bizkaiko Eskolarteko Bertso Paper Lehiaketan saritua.
1999 BBK Sariketan txapeldun Txorierriko taldean.
1999 Berritxu Bat-bateko Bertso Sariketan txapeldun.
1999 Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan txapeldun.
1999 Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan txapeldun.
2000 Bizkaiko Txapelketan finalista.



10ekotxikian Jon Sarasua

- 1) "Sarasua, bai tipo burutsua!" esan zidan lehengoan lagun batek. Burua, bihotza eta eskua batera samar eramatea da zailagoa. Burutsu banintz bihoztun eta ekintzatsua izateak berotuko lidake buru burutsua.
- 2) Bertsolari, idazle, irakasle, letragile, kazetari, soziologo... Nondik ateratzen duzu denbora?
Denbora atera egin zitekeela uste izanda hor ibili naiz instrumentu guztiak probatzen, lardaskatzen egia esanda, eta ez du meritu berezirik. Denbora mirari bat dela sumatu dudanez doinuak tiratzen diit gehiago.
- 3) 1991. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala. Inoiz damutu al zaitu orduko hartan egina?
Ez. Damutzeak zentzu aberatsa du, baina "egindako gauza bat ez egin izana desiatzeari" garbatzea esaten diogu gure eskualdean. Garbatzea zozokeria delakoan nago. Eta zerbaitetaz garbatzekotan, barru askorekin eta kalkulo gutxiarekin egindako protesta hartaz ez horraitio!
- 4) Bilbon Euskalduna jendez lepo, Donostian Kursala jendez mukuru... Bertsolaritzan ondo doa, ezta?
Badao bertsolaritzan. Dabilen harriari ez zaio goroldiorik itsasten, koska batean apurtzeko ere arrisku gehiago du baina. Euskalduna eta Kursala baino bizi-seinale hoberik badu: elkartearen martxa, sortzaile belaunaldi berria, eta bietan pasta oneko jendea.
- 5) Noiz ikusiko dugu Sarasua txepetxa berriro oholta gainean kantari?
Ez dakit. Ez dut presarik hasteko. Uste baino itzulmin gutxiago sentitzen dut, pereza apur bat ere bai. Guztiz beste etapa bat hasteko tentazioa ere bai, izkurrako gogoia.
- 6) Hurrengo tesia, Espainia aldeko kazetarien hizkeraz?
Kazetaritzaz orohar nago ni hoztua. Eta Espainiako kazetariak baditu bi zama xeblebre gauza onerako.
- 7) Zer moduzko aita zara, Jon?
Gozalaria eta hobegurakoa.
- 8) Aipatu inoiz ahaztuko ez duzun bertso jarduna.
Hemeretzi urte izan dira oholtzetan, eta ezin dut bat aukeratu. Akaso behin barrutik zisko eginda nengoela Amurizarekin Gasteizen gai librean kantatu nuenekoa. Neure burua harritu nuen.
- 9) Martxoaren 23an bertsolari gazteen jaialdia egingo da Algortan. Gaijartzaile Andoni Egaña hautatu dugu. Zer deritzozu hautuari?
Ofizialki txapeldun dena extra-ofizialki ere txapeldun dugu, eta hori zortea da. Gai jartzen berriz, kapaz da igual aski gairik gabe joan eta bertsolariak beren artean elkarriz gaitzen ipintzeko...
- 10) Uribe Kostan Sarasuazale asko dago. Egiezu koplaxo bat.
Gure patu bitxia / Uribe kosta / euskaldun izan eta / hori be kosta. m

Bertsoeskolatuz 3 ERRIMA

Aurreko atalean aurreratu genizuen, neurriaren gaineko azalpenaren lagungarri, bertso bertsolero bikoitietako azken hitzek, salbuespenak salbuespen, hoshideak izan behar dutela. Hitzen arteko hoshidetasunaz hitz egitean, uneoro errima darabilgu buruan. Errima da bertsoaren oinarria; ez da kasualitatea, beraz, errimatzen duten edo hoshideak diren hitzak bertsoaren oinak direla esatea.

Plazarik plaza dabilen bertsolariak errimaz ondo hornituta eduki behar du buruko ganbara, halako batean, errima txarra erabiliko ez badu, edo errima topatu ezinik isilik geratuko ez bada. Errimak era askotara antola daitezke buruaren barruan, baina sistemarik ohikoena, multzotan sailkatzea da. Adibidez: -eba, -ega, -era eta -eda (arriba, artaga, aukera, heda) bukaerak multzo berean egongo lirateke. Bistan da multzo honetako bukaeren bokalak berdinak direla, eta kontsonanteen arteko hoshidetasunaren berri jakiteko, bada trukotxo bat. Berba bi hauek gogoan gordetzen badituzu, lana ikaragarri erraztuko zaizu: BeGiRaDa eta KoPeTa. Ohartzeko bazara, begirada berbako kontsonanteak dira gorago aipatu dugun multzoko bukaerako kontsonanteak. Bigarren berba oinarritzat harturik, beste honako multzo hau osa dezakegu: -eko, -epo eta -eto (egiteko, lepo, hobeto). Hona hemen, labur bada ere, beste errima multzo batzuk: -ama, -ana; -otza, -otxa, -otsa; -aze, -axe, -ase; eta abar.

Gaurko ikasgaia era ilustratu batez amaitzeko, errepara diezaiozun Jon Sarasuaren bertso bati. Hauxe izan zen Joserra Gartzia jarri zion gaia laburturik: Merezki al du mundu honetara haurrak ekartzea?

Denok pentsakor utzi ote gaitu Joserraren esakerak?
Hemen gehienok bildurtzen gaitu munduak duen tankerak.
Alde batetik laburrak dira giza bizitzaren hegak;
guk bidetxo bat jarri diogu ta ahal bada eman aukerak;
merzi duen edo eta ez noizbait esango du berak.

Bertsoa aztertzeke pazientzia hartzen baduzue, eta aldzakarira idatzi nahi badiguzue edozer komentatzeko, guk pozarren hartuko ditugu zuen esanak. Hurrengora arte. i

[jan&edan]



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txarripatak

Plater honek aurrekoan egin genuen barraskiloen saltsa bera du oinarri, hau da, Bizkaiko saltsa. Hasteko, zer esanik ez dago, gure konfiantzazko harakinari eskatuko dizkogu txarripatak, erditik zatitu eta majestic-ean ordu erdiz egosten jarriko ditugu porru batekin eta piper beltz bola batzuekin. Bestaldetik, Bizkaiko saltsa prestatu behar da. Tipula, porrua, eta berakatzat txikitu behar dira eta su ahulean jarriko ditugu. Ondoren txorizo-piperrak gehituko ditugu, hauek ordu erdiz ur berotan eduki eta okela kendu ondoren. Hau guztia hamar bat minututan sutan eduki eta gero txinotik pasatuko dugu. Saltsa urtsua gera ez dadin, okela salda apur bat bota dakioke. Amaitzeko, lapikoan aurretik egositako txarripa-

osagaiak (6 lagunentzat)

6 txarri pata • hiru tipula gorri, handiak • berakatzatza • porru bat
10 txorizo piper • 150 ml. okela salda • piper beltza • olio • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

Patxarana

Nafarroako ohizko edaria da eta 1988tik Denominación Especifica de Pacharán Navarro delakoak babesten du. Jatorrizko izendapen honek 16 marka saltzen dituzten sei enpresek osatzen dute. Hala ere, antzinako testuen arabera, patxaranaren jatorria frantsesa ei da. Patxarana egiteko erabiltzen diren basaranak edo patxaranak, Europa osoan zehar daude.

Basaranak udaren bukaeran ontzen diren kolore beltz-urdi-neko basafruituak dira. Jatorria basalandare batean du (Prumus spinosa L.), hala ere, lau mota egoki bereiztu dira eta gaur egun, experimentazio lanen ondoren, badira mota hauetako 110 hektarea basaran Nafarroan, gehienak Erriberan.

Historikoki bere balizko propietate digestiboak direla eta, sendagai moduan erabili izan da patxarana. Mende hasieran patxarana egiteko basaranak eta anisa botilan elkartuz egiten zen. Gero, gozotasun apur bat emateko melokotoi zatiak gehitzen zitzaizkion. Hala ere, 1956. urtera arte ez modu industrialean produzitzen hasi.

Gaur egun, patxarana egiteko basaranak alkohol agrikolean beratzen dira, lehenago edo ondoren, anisaren olio esentziak gehitzen zaizkio. Beratzea hilabete bat eta zortzi artekoa izaten da.

Prozesu honi esker hartzen du patxaranak bere kolore gorri berezi hori. Garrantzitsua da azpimarratzea, beratze prozesuan aldika astindu egiten dela patxarana basaranak ondoratu ez daitezten, suspentsioan egon behar dute-eta zapore transmisio egokia lortzeko. Nafarroako araudiak 125-250 gramo basaran patxaran litroko agintzen du. Amaitzeko aipatu behar da edari honen graduazio alkoholikoa 25 eta 30 artekoa izaten dela.



Patxaran bodega batzuk

DESTILERÍAS LA NAVARRA S. A.: La Navarra, Etxeko PR LARIOS: Zoco
VINÍCOLA NAVARRA S. A.: Irati, Alaiz
MARIE BRIZARD DISTRIBUCIÓN S. A.: Olatz

[ohiturak]

kukuak udabarrian kuku


Udabarria gainean daukagu, eta bere etorreraren seinale ageri eta nabaria da kukuaren kantua.

Testua: Akaitze Kamiruaga

Udabariaren etorrerarekin, neguko hotzak, ekaitzak eta afrontuak igarota (edo erdi igarota, oraindik ere jasan izan beharko ditugu eta), mendi tontorretako elurra desagertu ostean, neguan erdi lotan egon diren zelaia, zuhaitzak, landareak... berpiztu, musker-tu, loratu egiten dira, natura jaioberritu egiten da.

Udabariaren etorrerarekin, neguak lapurtutako argi-orduak berreskuratuz, eguna gero eta luzeagoa da eta gaua oster gero eta laburragoa. Sasoi honetan eguzkia indarrez josten hasten da eta honekin batera geu bere indarberitu egiten gara, holantxe dio behintzat esaera zaharrak: udabarria odol barria.

Baina guzti honez gain bada udabariaren etorreraren beste seinale bat ageria eta nabaria: kukuaren kantua. Makinatxo bat dira txori honi buruz dau den esaerak eta sineskerak. Esaeren artean orokorrena beharbada hau da: Kukuak esan ei zuen, Andra Mari Martikoz (hila honen 25a) ez bazetorren, bere ondraz (hiletak) egiteko. Honekin lotuta beste hau dago: Kukuak Andra Mari Martikoz kuku, San Pedroz mutu. Beste esaera zahar batzuk: Kukuak kuku Erromako zubian, zortzi egunerako agertuko da Euskal Herrian. Kukuak bere izena kantatzen du. Kukuak etorri, gosea etorri; kuku joan, gosea joan. Kukuak kantatzen euri eta eguzki. Kukuak zazpi urtean eskolan ibili eta kuku baino besterik ez eban ikasi.



Sineskeren artean euretako batzuk kukuaren urteko lehenengo kantuarekin lotuta daude. Lehenengo biderrez kukuaren hotsa entzutean aldean dirua daroan urte osoan izango dauala esaten da, oster dirurik ez daukana beti pobre izango da.

Baten batek kukuaren soinua entzuz gero biziko den seinalea da, urte horretan ez dala hilgo pentsaten da, horregatik gaixoak kuku entzutean esperantza hartzen dau, sasoi txarrak eta negua amaitu direlako. Era berean, urte baten kukuaren hotsa asmaten ez dauana hurrengo urtean ez dala biziko esaten da.


Orain hau guztia jakinda, adi ibili, eta diru faltan izan nahi ez badozue, besterik ez bada bost ogerlekoko poltsikotik

EREAGA

Bidaiak Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixtarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA- KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15 48990

Barrukoa Taberna



Telletxe 5

ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

[aitormenak]

Itxaso Güena

turismoan aditua

“Jende oso atsegina da, maitagarriak dira afrikarrak”

Hiru hilabete eman ditu Itxasok Zanzibarren, Madagaskar ondoko irla batean. Hotel txiki batean harreman publiko lanak egiten zituen. Korrika eta presaka irten behar izan zuen handik, lan egiten zuen hotelean lehergailu batek eztanda egin ondoren. Orain gure artean dago berriro ere.

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

Karimbo (ongi etorri) Itxaso, jambo (kaixo). Mambo (zer moduz)?

Poa sara (ondo), barkatu baina nire swahilia hortxe amaitzen da. Ea Itxaso, zelan hasten da lanean Algortako neska bat Zanzibarren, munduko bazter horretan?

Niri bidaiatzea betidanik gustatu izan zait; horregatik turismo ikasketak egin nituen Deustun. Iaz karrera amaitu ostean eta ikasle bizitzari agur esateko bost hilabeteko bidaiara egin neun Australiatik zehar. Ondoren lan bila hasi nintzen; Internet-en, kurrikulumak noranahi bidaliz... Edonora joateko prest nengoen. Handik gutxira Zanzibarrera joateko prest ote nengoen jakiteko deitu zidaten Mallorcako enpresa batetik. Segituan baiezkoa eman nuen herri hura ezta non zegoen ere ez nekiela. Gero atlean begiratu behar izan nuen.

Hara ailegateran, zein izan zen hartu zenuen lehenengo inpresioa?

Egia esatea nahi baduzu, hango aireportura heldu nintzanean harrিতuta geratu nintzen, nora demontre joan nintzen galdetzen nion nire buruari: aireportuan, hango presidentearen argazkia zintzilik eta okertuta, dutyfree hutsik, maletekin desastrea...

Gainetik bada ere, zelakoa da Zanzibar? Tanzania, Tanganikak (kontinenteko zatia) eta Zanzibarrek (irla bat) osatzen dute. Herrialderi izena hortik datorkio. Lehen banaturta zeuden eta orain estatu bakarria osatzen dute. Zanzibarren badago independentziaren aldeko mugimendu indartsua. Liskarrak egoten dira eta hildako asko ere bai. Bestalde, zoragarria da, paradisiakoa. Natura itzela da, hondartza ederrak... eta onena, jendea.

Hotel txiki batean zeunden lanean...

Bai, ia-ia familiarra zen, ez zen makrotel horietako bat. Harreman publikoak egiten

nituen, hau da, bezeroekin egon, eurekaz tra-guak hartu, irla erakutsi... Oso lan atsegina. Zanzibarren turismoa gauza berria da eta bertakoak oraindik harritu egiten dira pertsona zuriak ikustean; zurekin egon nahi dute, interes handia azaltzen dute...

Lehen esan duzu onena bertoko jendea dela, zer azpimarratuko zenuke? Zelakoak dira?

Beltzak, oso beltzak (barreak). Txantxa zen, orain serio. Jende oso atsegina da, maitagarria. Oso pertsona zabalak dira eta beti laguntzeko prest daude, adibidez, behin txango batean motorra izorratu zitzaigun eta jende mordoak hurbildu zitzaigun laguntzera. Bestalde, apur bat lapurrak ere badira. Hotelean dirua utziz gero bat beti hartuko dizute zerbait. Eta... oso promiskuoak dira. Hortaz topikoa egia da?

“Sexua naturaltasun osoz bizi dute, ez daukate inolako lotsarik edo konplejurik”

Bai, bai. Sexua naturaltasun osoaz bizi dute, ez daukate inolako lotsarik, edo konplejurik. Adibidez behin, lagun batekin, gizonezkoa, bertako bat hurbildu zitzaigun. Nire lagunari gau baterako bere arreba eskaintzen zion, trukean nik gaua berarekin ematen banuen. Horrelako gauzak oso arruntak dira han. Kontu honetan, nik uste du klima bero horrek badaukala eraginik.

Entzuna dut polizia oso korruptoa dela Afrikako herrialde askotan...

Ez dakit korruptoak diren baina han behintzat, edozein aitzakia jarrita, turistari, ahal duten diru guztia ateratzen saiatzen dira. Adibidez, hondartzetan zelatan egoten dira poliziak, eta bikote bat zirriak egiten ikusten badute, segituan azalduko dira han ehun dolar eskatzera hura egitea debekatuta dagoe-

la esanez. Ez da egia baina jendeak beldurragatik edo, ordaintzen ditu. Beste adibide bat, marihuanarena da. Han asko dago. Ba, tipo bat hurbiltzen zaizu, inguruan dabilen poliziaren laguna seguru asko, eta belarra jarriko dizu eskuetan ea erosi nahi duzun galdezka, ba, segituan azaltzen zaizu polizia ehun dolar eskatzera droga erosten saiatu izanagatik.

Zanzibarretik presaka eta korrika alde egin behar izan zenuen...

Bai, oso tristea izan da. Kontua da etxera oporetan etorri behar nuen gau berean, lehergailu batek eztanda egin zuela gure hotelean, eta beste batek ondokoan. Goizeko ordu batak ziren eta hotela berehala hustu behar izan genuen. Beldurra eta izua pasatu genuen. Ez genekien zer gertatzen zen, ez genekien kanpoan gu erasotzeko jendea egongo zen...

Irudia ikusgarria zen: denok hondartzan pijama hutsean jantzita eta maletekin. Matxinada politikoarekin loturiko zeozer zela uste genuen hasieran. Gero jakin dut, hoteleko zuzendariak bazuela mehatxuaren berri eta ez zuela ezer esan ezta ezer egin. Ematen du, hotel horietan lanean egon ondoren, kanporatuak izan ziren langile batzuen mendekua izan zela.

Beno eta orain berriro hemen...

Bai, penaz lagun asko hantxe utzi ditudalako. Orain Iberian azafata moduan lan egiteko hautapropa batzuk egiten ari naiz. Baina gehiago gustatuko litzaidake beste norabait lanera joatea, bertan bizi eta herria ezagutu ahal izateko. Pozik joango nintzateke Mexikora, Cabo Verdera edo Txinara, zergatik ez? m



UMEAK
GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

I

Iñaki

Bitxitegia



OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Maite zaituen horrek, malko bat baino gehiago isuri araziko dizu. Kontuz beraz zure bikotearekiko harremanetan. Bestelakoan, sasoi bete-betean zaude: osasuntsu, baikor... Bizitza gozatzeko prest. Zure esku dago...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Ez izan horren suminkorra zure bikotearekin, asperu zenezake. Gainera, zekena izatea ez da gauza ona. Ez daukazuna ez gastatu, baina noizean behin eskua poltsikora eramaten baduzu erronda ordaintzeko izan dadila.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Nekatuta sentituko zara, baina arazoak ahazteko, exxean telebista ikusten geratzea agian ez da behar duzuna. Irten; zure ametsa kalean egon daiteke. Edo telebistan bilatzen jarraituko duzu?

META



(Irailak 17 urriak 16)
Zaindu zure gastuak, ezin duzu gastatu ez daukazuna. Elikadura zaintzea ere komeni zaizu. Kiloak ez dira galtzen ura edanez soilik. Ez sinistu telebistan kontatzen duten guztia.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ardo goxoak lau begi eta oinik ez. Parranda ugari, ezta? Ba, esatera zahar hau gogoan hartu. Benetan uste al duzu gustuko duzun horrek jaramonik egingo dizula, mozkor eginda tabernaz taberna baldin bazabiltza?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Lan egiteagatik ez da ezer gertatzen. Gainera behar duzun dirua irabazteko modu bakarra izan daiteke. Bestela, ez daukazulako, ez negarrik egin. Maitasunari dagokionez, garai latzak datozkizu.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Sasoi bete-betean zaude eta gainera harremanetan ederto moldatzen ari zara azkenengo bolada honetan. Zoritxarrez, zure gastuak kontrolatzen hasten ez bazara, diru kontuetan gauzak okertu daitezke.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Nekatuta sentituko zara, baina kontraesankorra iruditu arren, hobeto sentituko zinateke kirol apur bat gehiago egingo bazenu. Gainera, zure bikoteak eskertuko lizuke.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Dena kontrari daukazula uste duzu? Horrela al dira gauzak? Hobe zenuke zure burua aztertzea. Batzuetan, beti ez esateagatik, erruduna norbera da eta ez mundua. Arazorik badaukazu, eta hala da, lagunengana jo horretarako daude eta.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Benetan maite baduzu esaiozu: zabaldu zure bihotza eta ea zer gertatzen den. Hobeto sentitzen al zara horrela, ezer egin barik? Kontuz diruarekin. Espero ez duzun gasturen bat agertu liteke...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Minberakor eta suminkorregi zabilza azkenengo bolada honetan eta hurrengo egunak onak izan litezke jarrera hori alde batera utzeko eta ondo pasatzeko. Diruari dagokionez behintzat, ezin kexatu!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Energiaz gainezka zabilza. Ea zertan gastatzen duzun! Zure bikoteak opariren bat eskertuko lizuke. Maiteminduen egunerako ez zuela nahi esan zizun, benetan sinestu zenuen?

MUNGGIA

oKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

[komikia]

BEHIN BATEAN BANINTZEN NI TABERNA BATEAN ETA BAT-BATEAN NORBAITEK BESOA IKUTU ZIDAN. .. ZEIN IZAN ZEN HARTU NUEN SORPRESA LAGUNTZA ESKE ZEBILEN IGELTXO BAT ZELAZ OHARTU NINTZENEAN...

BETIDANIK IGELA IZAN EZ ZELA KONTATZEN HASI ZITZAIKAN ETA EA FABOREZ, LEHENAGO IZAN ZENA BERRIRO ERE IZATEN LAGUNDUKO OTE NION ESKATU ZIDAN

KEZKA AURPEGIA ZEUKAN, ETA HAIN BEGIRADA TRISTEA EZE EZIN IZAN NION EZETZ ESAN ESKATZEN ZIDANARI...

ESAN ZIDAN BERE GORPUTZA GOZO LAZTANDU BAINO EZ NUELA BESTERIK EGIN BEHAR, APUR BATEZ...

ETA AZKENIK, MUSU EZTI BAT EMAN NIEZAIOLA ESKATU ZIDAN... EZPAINETAN

HALAXE EGIN NUEN ETA BAT-BATEAN...

...BEGIRADA IRRIBARRETSUKO ZORTZI URTEKO UME KOXKOR BAT BIHURTZEN HASI ZEN...

ETA HONEKIN JAUNA, NIRE

GEZURTI! AGURE GORDIN!

SE FINI!

NON DAGO NEREA?

5. ATALA




06:00 AM



Hau hotza! Nork esango luke martxoan gaudela! Egutero gauza bera, potrohandi hauek beti berandu!


09:00 AM



Kaixo Consuelo! Badakit apur berandu gatozela... barkatu baina dutxan lehenago non sartuko zen eztabaidatzen egon gara eta hori... Portzieto, utzidazu egunkaria, nire akzioen berri jakin nahi dut eta.

Ikusten Klaudio... txapel zahar hori barik askoz guapoagoa zaudete! Barkatu, zineten, ezta?

Bai, bai... Arraro xamar sentiduten naz, baina eskerrik asko Mikel!



Klaro, oin ulertzen dot zetik desager-tu dan! Honek... diru duzti gasta dau apostutan! Goiiren partidun gañera! Eta oin ez deko diru neuri alokairua pagateko!



Jo Klaudio! Txapela etxean utzi duzu baina mentalitatea... Ziur Gran Hermano-n parte hartzeko castinga egitera joan dela! Eta ikusita eskatzen duten koefiziente maila, fijo, hartu dutela!

extrak edo figuranteak



Hara! Ni irakurtzen ari naizena irakurtzen ari zarete zuek?

Bai, Tamara Eurovision-era!



Baina ze demon-tre gertatzen da? Ematen du mamu bat ikusi duzue-la!!!!

Ez al zarete konturatu badirela aste bi Nerea Tolosako inauterietara joan zela eta ordutik ez dela etxera itzuli! Ez du sikiera e-mailik bidali!

ekonomia orrialdeak irakurtzen ari da



Hau amatxu hau!!

Eta zer? Ibiliko da hortik... eta ondo seguru, berri txarretaz arin enteratzen gara beti!



Hauek axolagabeak! Ziur istripu-ren bat izan duela! Edo bahitu dutela! Ai ene!!!



Ez aluak! Begiratu azala!



Egunkaria
 EGUNKARIAK Paco Porrás-en azken maitalea deskubritu du, Donostia-koa eta Nerea azpitarte du izena

Bere lehenengo adierazpenak: "Lagun onak baino ez gera, Tolosako inauterietan elkar ezagutu genuen eta oso ongi moldatzen gera"

[flash back]



Argazkia: Mikel Martinez

Bolue peña 1992 Kopa finalerako atekak ireki zituen entsaioa ospatzen ari dira argazkian azaltzen diren "Bolue peñako"ko lagunak. Urte hartan Getxo Rugby Taldeak kopa eskuratu zuen Mercabarna Buc mendean hartu ondoren.